



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

# **BELAUNALDI BERRIETAKO HAURREN ETA EUSKAL HAUR LITERATURAREN ARTEKO HARREMANA**

## **GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Acosta Domínguez, Paul.

ZUZENDARIA: López Gaseni, Jose Manuel.

**2018-2019**



## LABURPENA

Azkeneko urte hauetan aurrerapen handia eman da teknologia berrien alorrean, eta horren eraginez, gaur egun normaltzat hartzen dugu haur eta gazte gehienak sakelako telefono batekin ikustea. Honetaz aparte, etxebizitza askotan telebistek, tabletek, ordenagailuek eta bideojokoek pisu handia hartu dute, liburuak bigarren plano batean utziz. Etorkizuneko irakasle bezala, egoera honek kezkatzen nau, eta haur-literaturaren presentzia haurren artean mantentzeko ahalegindu behar naizela sentitzen dut. Hori dela eta, Gradu Amaierako Lan (GrAL) honetan, Trapagarango umeek euskal haur-literaturarekin zer nolako harremana duten aztertu dut. Hori bideratzeko, landa-lanaren bidezko ikerketa bat aurrera eraman izan dut, herri bizkaitar honetako lau eskoletatik eta herriko liburutegitik galdetegi batzuk banatuz. Galdetegia erantzun dutenak hirugarren mailako gurasoak eta udal liburutegiko harreragilea izan dira. Jasotako erantzunei esker, zenbait aztergaiei erantzuna aurkitu diet: gurasoek nola sustatzen duten irakurketa; haurrek norekin irakurtzen duten; nongo liburuak irakurtzen dituzten; zein generoko liburuak irakurtzen dituzten; etab. Behin erantzunak jaso ditudala, horiek aztertu ditut, eta herriko bi eskola publikoen (La Escontrilla eta San Gabriel) eta itunpeko bien (Itxaropena Ikastola eta Franciscanas de Montpellier) artean ematen diren desberdintasunetan batez ere enfasia jarri dut. Gainera, udal liburutegiko harreragilearen iritzia ere kontuan hartu dut, eskoletan egindako inkestetatik lortutako emaitza kualitatiboak baieztatzeko.

Hitz-gakoak: Euskal haur-literatura, irakurketa, liburuak, teknologia berriak, udal liburutegia.

## RESUMEN

En estos últimos años ha habido grandes avances tecnológicos, y debido a ello, hoy en día normalizamos que los jóvenes, niños y niñas tengan un teléfono móvil. Además, en muchas viviendas las televisiones, tablets, ordenadores y videojuegos han cogido mucho peso, dejando los libros en un segundo plano. Como futuro profesor, esta situación me preocupa, y por ello, siento que tengo que esforzarme para mantener la presencia de la literatura infantil entre los niños y las niñas. Por eso mismo, en este Trabajo de Fin de Grado (TFG) he analizado la relación que tienen los niños y niñas del Valle de Trápaga con la literatura infantil vasca. Para llevar eso a cabo, he realizado un trabajo de investigación, repartiendo encuestas en los cuatro colegios y en la biblioteca municipal de este pueblo vizcaíno. Los padres y madres de



tercero de primaria y la recepcionista de la biblioteca municipal han sido las personas que han respondido a las encuestas. Gracias a las respuestas recibidas, he resuelto diferentes temas a analizar: cómo impulsan los padres y madres la lectura; con quién realizan esta actividad; de dónde son los libros que leen; de qué género son los libros que leen; etc. Una vez recibidas las respuestas, las he analizado, poniendo sobre todo énfasis en las diferencias entre los dos colegios públicos (La Escontrilla y San Gabriel) y los dos concertados (Itxaropena Ikastola y Franciscanas de Montpellier). Además, también he tenido en cuenta la opinión de la recepcionista de la biblioteca municipal, para reafirmar las respuestas cualitativas obtenidas en las encuestas.

Palabras clave: Literatura infantil vasca, lectura, libros, nuevas tecnologías, biblioteca municipal.

## **ABSTRACT**

In these last years there have been big technological advances, and because of this, nowadays we normalise that young people and children have a mobile phone. Besides, in many homes televisions, tablets, computers and video games have taken importance, leaving books secondly. As a future teacher, this situation has me concerned, and for that, I feel that I must make an effort to keep the presence of the child literature amongst children. Because of that reason, in this Final Degree Project I have analyzed the relation between children of Trapagaran with the Basque child literature. To carry out that, I have conducted a research work, distributing surveys in the four schools and in the library of this Biscayan town. The parents of third grade and the receptionist of the municipal library have been the people who have answered the surveys. Thanks to the answers received, I have solved different themes to analyze; how parents motivate the reading; where are the books they read from; who do children make this activity with; where are the books they read from; what genre of books they read are; etc. Once received the answers, I have analyzed, placing specially emphasis on the differences between the two public schools (La Escontrilla and San Gabriel) and the two charter schools (Itxaropena Ikastola and Franciscanas de Montpellier). Besides, I have taken account the opinion of the receptionist of the municipal library, to reaffirm the qualitative answers got in the surveys.

Keywords: Basque child literature, reading, books, technological advances, municipal library.



## **AURKIBIDEA**

<b>1. SARRERA</b> .....	<b>5</b>
<b>2. JUSTIFIKAZIOA</b> .....	<b>7</b>
<b>3. MARKO TEORIKOA</b> .....	<b>8</b>
3.1. Euskal Haur literaturaren sorrera eta bilakaera .....	8
3.2. Eskolaren, familien, liburutegien eta teknologia berrien eragina.....	11
3.3. Gaur egungo datuak irakurzaletasunarekiko.....	13
3.4. Curriculumarekiko lotura .....	15
<b>4. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK</b> .....	<b>17</b>
<b>5. METODOA</b> .....	<b>18</b>
5.1. Metodologia .....	18
5.2. Erabilitako tresnak .....	18
5.3. Parte-hartzaileak.....	19
5.4. Prozesua .....	20
<b>6. EMAITZAK</b> .....	<b>21</b>
<b>7. DATUEN INTERPRETAZIOA</b> .....	<b>28</b>
7.1. Eztabaida.....	28
7.2. Ondorioak .....	34
<b>8. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK</b> .....	<b>37</b>
8.1. Lana hobetzeko proposamenak.....	37
8.2. Irakurketaren egoera hobetzeko proposamenak .....	37
<b>9. BIBLIOGRAFIA</b> .....	<b>40</b>
<b>10. ERANSKINAK</b> .....	<b>41</b>



## 1. SARRERA

Gradu Amaierako Lan honek ume euskaldunen irakurzaletasun maila izango du aztergai, eta horretarako, euskal haur eta gazte literaturarekin zer nolako harremana duten aztertu egingo dut. Horretarako, hiru praktikaldietan ikusitakoa oinarritzat hartuko dut, eta horretaz aparte, Trapagarango liburutegiko langileei eta 8-10 urte bitarteko umeen gurasoei egindako inkestak erabiliko ditut, lan honen hurrengo ataletan ondo azalduko dudan moduan.

Irakurzaletasunarekin eta irakurtzearekin harremanetan dagoen lan bat denez, aldeztatik irakurtzea zer den argi utzi nahi dut. Izan ere, gaur eguneko jende askok ez du argi zein den irakurtzearen esanahi zehatza. Askok pentsatzen dute irakurtzea letrak eta hitzak deskodifikatzea dela, testuaren ulermena irakurtzearen definizioetik guztiz aldentuz. Baina irakurtzea deskodifikatzea baino haratago doa, irakurleak testua ulertu eta interpretatu behar duelako, ondoren irakurritakoaren inguruan gogoeta bat egiteko (Fons Esteve, 2004).

Behin irakurtzearen definizioa emanda, esan beharra dago irakurtzeak ez duela esan nahi liburu bat irakurtzea eta hura ulertzea. Urretabizkaiak (2017) esan bezala, egungo pertsona gehienek egunero irakurtzen dute, pantaila baten aurrean dutena esaterako. Beraz, nahiz eta liburuak ez irakurri, edonork egunero irakurtzen duela esan dezakegu. Hori dela eta, nik gaur egungo belaunaldi berriek literaturarekin duten harremana aztertuko dut, aurrerapen teknologikoak direla eta, liburuak alde batera uzteko arriskua handitu da eta, eta horrek etorkizuneko irakasle bezala kezkatzen nau.

Txostenaren egiturari dagokionez, esan beharra dago GrAL hau hamar atalez osatuta dagoela. Lehenengo atala hau da, non lanari buruzko sarrera bat egiten den eta txostenaren egituraz aritzen naizen. Bigarrenak ere lehenengo atal honekin harremana du, lana aurrera eramateko izan ditudan motibazioak zeintzuk izan diren kontatzen ditudalako.

Hirugarren puntua nahiko zabala da, lanaren marko teorikoa da eta. Bertan, lau azpiatal desberdin aurki daitezke. Lehenengoan euskal haur literaturaren sorrera eta bilakaera kontatzen da; bigarrenean, eragile desberdinek zer nolako eragina duten irakurketarekiko; hirugarrenean datu batzuk komentatzen dira, irakurzaletasun mailaren inguruan hain zuzen; eta azkenik, laugarren azpiatalean, lanak curriculumarekiko duen lotura kontatzen da, hau da, Heziberri 2020rekin duen lotura.

Hurrengo atala nahiko zehatza da, izan ere, bertan lanaren helburuak eta aztergaiaren inguruko hipotesiak zehazki agertzen dira.



Jarraitzeko, metodoa aurki daiteke, non lanean zehar erabilitako metodologia komentatzen den. Horretaz aparte, lana aurrera eramateko erabili izan ditudan tresnen deskribapena ere idatzita dago. Gainera, landa-ikerketa honen parte hartzaileak nortzuk diren esaten da, eta eskola bakoitzeko nortasuna azaltzen da. Puntu honi bukaera emateko, lanaren prozesua azaltzen dut.

Seigarren eta zazpigarren puntuak eskutik lotuta doaz. Izan ere, seigarrenean agerian dauden emaitza objektiboak hurrengo puntuan subjektibotasunez aritzeko erabili ditut, datuen interpretazioaren atala egiteko, alegia. Bertan, nire hipotesiak baieztatu edo ezeztatzen ditut, beraz, lanaren laugarren atalarekin ere lotura egiten da. Emaitzak eta ondorioak modu argiago batean adierazteko, grafikoak erabili ditut.

Hurrengo puntuak hobetzeko proposamenak aipatzea du helburu. Bertan bi azpiatal agertzen dira. Alde batetik, lana hobetzeko aproposak izan daitezkeenak; eta bestetik, irakurzaletasunaren egungo egoera hobetzeko komentatzen ditudanak.

Azkeneko bi ataletan bibliografia eta eranskinak agertzen dira. Bibliografian lanaren marko teorikoa osatzeko erabili ditudan informazio iturriak agertzen dira; eta eranskinen azkeneko atal horretan ikerketa lan honetan erabilitako inkestak eta parte hartu duten eskolak agertuko dira.



## 2. JUSTIFIKAZIOA

Atal honetan, Gradu Amaierako Lan (GrAL) hau aurrera eramateko izan ditudan motibazioak zeintzuk izan diren aipatuko ditut. Nire belaunaldietako neska-mutilak ez gara aurrerakuntza teknologiko nabarmen honen garaian jaio. Umeak ginenean, arruntena orduak eta orduak kalean lagunekin ematea zen, eta ez geneukan inolako mendekotasunik telefonoekiko, ordenagailuekiko edo bideojokoekiko. Nire kasuan behintzat, etxera ailegatzen nintzenean, askotan gurasoekin batera irakurtzen nuen, nire gustukoak ziren liburuan hain zuzen, eta handik aurrera, irakur zale bihurtu nintzen.

Denborak aurrera egin ahala, teknologia berriek pisu handia hartu zuten gizartean, eta horrek eragin negatiboa izan zuen irakurzaletasunarekiko. Izan ere, momentu horretatik aurrera, irakurtzen ematen nuen denbora hori bideojokoekin edo mugikorarekin ibiltzearen ordeztatu nuen, eta haur literaturarekin nuen harreman hori galdu nuen.

Nire egoera hori bada, imajinatu dezaket gaur egungo umeen egoera zein izan daitekeen. Argi daukat irakurtzea oso aberasgarria dela pertsona oroentzat, eta are gehiago haur batentzat. Beraz, etorkizuneko irakasle bezala egoera hau aldatzeko ahalegina egin behar dudala sentitzen dut, eta horretarako, bai umeak, bai familiak kontzientziatzea ezinbestekoa dela deritzot.

Honekin ez dut esan nahi gaur egunean hainbeste presentzia duten pantaila horiek negatiboak direnik, baizik eta hauek eskaintzen dizkiguten baliabideak ondo aprobetxatu behar ditugula. Liburu bat *tablet* batean irakurtzea posiblea da? Argi dago baietz. Beraz, horretaz baliatu gaitezke umei irakurtzeko grina pizteko bidea eraikitzeko.

Paragrafo hauetan esandakoa kontuan izanik, argi dago zein izan den nire motibazio nagusia gai honetan murgiltzeko: aldezturik, gaur egungo neska-mutilen harremana euskal haur literaturarekin zein den aztertuko dut; ondoren, irakasle izango naizen heinean, umei eta familiei irakurtzeak dakartzan onurei buruz hitz egiteko eta gaur egunean liburuak eskuratzeko baliabide anitzei buruz kontzientziatzeko.



### 3. MARKO TEORIKOA

Denok dakigu irakurtzea edonorentzat aberasgarria dela, informazioa jasotzeko, gauza berriak ikasteko eta irakurketaz gozatzeko aukera ematen digulako. Horregatik, hezkuntza arloan lan egiten edo lan egingo dugunok garrantzia handia ematen diogu irakurtzeari, eta ideia hori umeei transmititzen saiatzen gara. Etorkizuneko irakasle bezala, irakurketa maila baxua izateko aukera egoteak kezkatzen nau, batez ere azkeneko urteetan eman den aurrerapen teknologikoa dela eta.

#### 3.1. Euskal Haur Literaturaren sorrera eta bilakaera

Lehenengo azpiatal honetan, aurreko belaunaldietako haurrek euskal haur literaturarekin zer nolako harremana zuten oinarritzat hartuko dut, eta gaur egungo egoerarekin konparaketa bat egingo dut.

Hori gauzatzeko, euskal literaturaren hasiera nolakoa izan zen kontatu behar da. Nahiz eta euskara oso hizkuntza zaharra izan, euskal literatura nahiko berandu agertu zen, XVI. mendean hain zuzen ere. Garai hartako obra gehienak erlijiosoak ziren, eta horien artean obra literario gutxi sortu ziren. Horretaz aparte, gogoan hartu behar da une horretan euskara baturik ez zela; beraz, obra horiek guztiak euskalkietan idatzita zeuden, eta bakarrik euskalki hori erabiltzen zuten pertsonentzat ulergarriak ziren (Etxaniz eta López Gaseni, 2012).

XX. mendearen hasieran euskal literaturak gora egin zuen, euskal nazionalismoak zuen indarraren ondorioz. Gainera, momentu hartan lehenengo eskola elebidunak sortu ziren, eta euskarazko materiala behar zutenez, euskal literaturaren bultzatzaileak ere bihurtu ziren, euskal nazionalismoarekin batera. Garaiko haur eta gazte literaturako obrarik ospetsuenak Kirikiñoren *Abarrak* (1918) eta Gregorio Mujikaren *Pernando Amezketarra* (1927) dira. Horietaz aparte, itzulpen obrak ere agertu ziren, euskal jatorria ez zutenak baina eskola elebidunentzat baliagarriak zirenak (Etxaniz eta López Gaseni, 2012).

Garai horretan, literatura hitza batez ere ahozko literaturarekin erlazionatzen zen, baliabide faltagatik, ipuinak eta istorioak bereziki ahoz aho transmititzen zirelako. Bakarrik gutxi batzuek zuten aurreko paragrafoan aipaturiko liburuak izateko aukera, haien maila sozial altuak horrelakoak izatea posible egiten zirelako. Zorionez, eskolatze mailaren igoera eman zenez, irakurketa maila sozial guztietako neska-mutilen artean hedatu zen, eta horrekin batera, alfabetizazio maila pilo bat handitu zen. Momentu





horretatik aurrera, literatura hitzak idatzizko literaturarekin harreman estua izan zuen, eta euskal haur literatura Euskal Herrian finkatzen hasi zen (Colomer, 2010).

Euskal haur eta gazte literaturak bide bat finkatu zuela zirudien, handik abiatzeko eta literatura aberasteko. Zoritzarrez, Espainiako Gerra Zibila etorri zen, eta frankisten garaipena zela eta, euskararen debekua etorri zen, aurretik publikatutako obra horiek guztiak bigarren plano batean geratuz. Errepresioa euskararekiko eta euskal literaturarekiko hain handia zen, non euskal iheslariak obrak haien gordeleketan ezkutatzen zituzten, Parisen edo Latinoamerikan besteak beste (Etxaniz eta López Gaseni, 2012).

Hirurogeiko hamarkadatik aurrera euskal gazte eta haur literaturarentzako aldaketa positibo asko etorri ziren. Izan ere, garai horretan euskara batua sortu zen, eta euskaraz soilik irakasten zuten lehenengo ikastolak sortu ziren. Momentu horretan euskarazko material gutxi zegoen, errepresio frankista zela eta, eta ikastoletan lan egiten zutenek euskara batuan ikasteko eta irakasteko materiala sortu zuten, geroago kontsumitu ahal izateko (Etxaniz eta López Gaseni, 2012). Horri esker, umeentzako zuzenduak ziren eta euskaraz sortu berri ziren obra horiek liburutegietan eta eskoletan finkatu ziren. Eskolak eta liburutegiak arazo desberdinak zituzten. Izan ere, eskolak liburuak zituenez, liburu horiek aproposak izatea garrantzitsuena zen; liburutegiaren kasua desberdina zen, bere xede nagusia umeak eta haien familiak bertara joatea zelako (Colomer, 2010).

Frankismoaren bukaerarekin batera, euskara finkatu egin zen euskal hezkuntza-sistemaren hizkuntza gisa. Horretaz aparte, Hordago, Elkar eta Erein editorialak sortu ziren, eta horri esker Euskal Herrian haur eta gazte literaturaren sektorea finkatu zen, laurogeigarren hamarkadan literatura modernoari hasiera emanaz (Etxaniz eta López Gaseni, 2012). Une hartan gizartean aldaketa sozialak eman ziren, eta horiekin batera hazkuntza ekonomikoa etorri zen. Jendeak euskal obra literarioak erosteko aukera gehiago zuenez, literaturaren merkatua hedatu zen, eta liburuak produzitzen zituztenek, gizarte kontsumista baten beharrak asetzeko jomugarekin, produkzioa handitu zuten (Colomer, 2010).

Une horretan haur literaturaren aberaspena gertatu zen, euskararen normalkuntzari esker genero askotako liburuak eskuragarri egon zirelako. Interes gehien pizten zutenak abenturazkoak, umorezkoak eta fantasiazko liburuak ziren. Nahiz eta genero horiek kontsumituenak izan, beste gai batzuek ere beren irakurle sektorea zuten, hala nola zientzia fikziozko liburuak edota nobela historikoak (Etxaniz eta López Gaseni, 2012).



Gizartearen garapenarekin batera, umeen arazo sozialak eta pertsonalak islatzen zituzten liburuak publikatzen hasi ziren, hau da, errealismo kritikoko obrak. Gai horiek aurreko belaunaldietan tabuak ziren, umeentzako aproposak ez zirela pentsatzen zelako. Horien artean, heriotza, elbarritasunak, bullying-a, biolentzia, etab. nagusitzen dira. Gai berri horien agerpena ontzat hartu zen, izan ere, horien agerpenarekin gizartea umeak bizitzan gertatzen diren arazoekin hazi behar direla kontzientziatu zelako (Colomer, 2010). Nahiko berria den genero honen artean, Mariasun Landaren *Txan Fantasma* liburua ezagunena dela esan daiteke (Etxaniz eta López Gaseni, 2012). Lantzeko zailak diren gai horiek literaturaren bidez tratatzeko, umorea, irudimena eta horrelako tresna hezitzaile aproposak erabili ziren, eta horrek onarpen handia izan zuen gizartean. Obra horien finkapenari esker, literatura modernoaren garaian murgildu ginen erabat (Colomer, 2010).

Gai berriek soilik ez dute islatzen haur eta gazte literaturaren garapena, beste obra mota batzuek indarra hartu baitzuten, albumek hain zuzen ere. Albumak, segurtasun handiarekin, literaturaren ekarpenik aberasgarrienak dira, hitzak aparte, irudiek funtzio narratibo bat betetzen dutelako. 1980tik aurrera zenbait album sortu ziren, baina garestiegiak ziren, produkzioa oraindik oso altua ez zelako. Beraz, kontsumitzaile kopurua oso baxua zen. Laurogeita hamargarren hamarkadarekin batera Kalandraka editorialaren sorkuntza etorri zen, eta editorial horri esker album pilo bat euskarara itzuli ziren. Gainera, 2007. urtean euskal idazle askoren obrak publikatu dituen Pamiela editorial nafarrarekin elkartu zenean, euskaraz sortutako album gehiago agertu ziren (Etxaniz eta López Gaseni, 2012).

Aipaturiko hori guztia kontuan izanik, ikus daiteke haur eta gazte literaturan aldaketa nabariak eman direla, eta zorionez, denbora aurrera joan ahala hobekuntzak eman dira, batez ere euskal idazle berriak agertu direlako eta enfasia haur literaturan jarri dutelako. Horien artean, emakumezkoen kopurua askoz altuagoa da, aurreko belaunaldi batzuekin konparatuz. Horrek asko lagundu dio euskal literaturari, eta bereziki, haur eta gazte literaturari. Beste hizkuntza batzuekin alderatzen badugu, euskaraz haur eta gazte literaturari buruzko obra asko produzitzen dira, konkretuki euskal literatura osoaren % 25a. Gaztelaniazko obrei dagokionez, soilik % 10 da haur literatura; hortaz, datu horiek kontuan hartzen baditugu, konturatuko gara euskal haur eta gazte literaturak aurrerapauso handiak eman dituela, eta familia gehientzako obra kantitate dezente bat eskuragarri dagoela. Beraz, datu haiei erreparatuz, ikus dezakegu gaur egun euskal haur literaturako liburuak eskuratzeko baliabide gehiago daudela (Etxaniz eta López Gaseni, 2012).



### 3.2. Eskolaren, familien, liburutegien eta teknologia berrien eragina

Haurrentzako bideratuta dauden euskal obrak eskuratzea errazagoa izateak ez du esan nahi irakurzaletasun maila aurreko belaunaldietan baino altuagoa izan behar denik. Ez gara irakurle zein ez irakurle jaiotzen, baizik eta denboraren poderioz bide bat edo bestea hartzen dugu, bakoitzak bizi izaten duen esperientzia dela eta (Cerrillo eta Yubero, 2007 in Serna, 2015). Moreno Sánchez-ek (2002) esaten duen moduan, irakurtzeko ohitura bereganatzeko bidean, zenbait faktorek garrantzia handia dute, familiak, eskolak eta liburutegiek esaterako. Horietaz aparte, teknologia berriek, komunikabideek, erlijioak edota politikak ere bide horretan eragina izaten dute, askotan guk pentsatzen dugun baino eragin handiagoa (Serna, 2015). Hori dela eta, nire aburuz garrantzitsuenak diren lau iturrietan enfasia jarriko dut gaur egungo umeen irakurzaletasun maila aztertzeko.

Colomer-en (2010) arabera, liburuak liburutegietan, liburu dendetan, etxean edota eskolan topa daitezke. Umeek zer irakurri behar duten eta zer ez askotan gurasoek aukeratzen dute, haurrari zenbait proposamen eginez. Beste kasu batzuetan, umeek askatasun handiagoa dute, eta portadak, kontra-portadak, irudiak, etab. begiratuta, irakurriko dituzten liburuak aukeratu ditzakete. Gurasoek umeei autonomiaz jokatzeko uzten badiete, haur horiek irakurketarekin eta bereziki haur literaturarekin harreman estua izango dute denbora pasa ahala.

Hortaz, nahiko argi dago gurasoen eredu funtsezkoa dela umeek irakurketarekin harremanetan hasteko eta harreman hori mantentzeko. Gurasoek beraien seme-alabek literaturarekin erlazio positibo bat izatea nahi izatekotan, garrantzitsua da beraiekin batera libururen bat irakurtzea. Irakurketa hori umearentzako eraginkorra izateko, gomendagarria da klima eroso eta lasai bat sortzea, letrek istorioa kontatzeko balio dutela jakinaraztea, irakurritakoaren eta geroago etorriko den arteko erlazioak egitea, pertsonaia nagusiari buruzko komentarioak egitea, irakurritakoari buruzko hausnarketa egitea, etab. Azkeneko hori oso garrantzitsua da (Chambers, 2007 in Colomer, 2010).

Familia eta eskolak irakurketa sustatzeko lehenengo mailako agenteak izan arren, askotan familiak lehenengo kontaktu hori ezin du eskaini, eta horren ondorioz, ume horren kasuan eskolak pisu askoz handiagoa hartzen du irakurzaletasunean. (Colomer, 2002 eta Ferrer, 2011 in Serna, 2015). Irakurzaletasuna haurrengan piztea tradizionalki eskolari egokitu zaion lan bat izan da, eta horregatik familia askotan irakurketa bigarren maila batean argi eta garbi geratzen da (Ruíz-Tilve, 2002 in Serna, 2015). Arlo honetan aipatu beharra dago maisu-maistrek ez dutela ardura guztia



hartzen, izan ere, haiek pisua handia duten arren, irakurzaletasuna bultzatzeko metodoak ere funtsezkoak dira (Serna, 2015).

Eskolari dagokionez, esan beharra dago bi helburu nagusi izan behar dituela ikastetxe batek. Alde batetik, eskola irakurketarekin inplikaturik egon behar da, eskolako ordutegian umeei irakurtzeko zenbait eskola ordu sartuz. Bestetik, haurrek egunero irakurtzeko ohitura har dezaten saiatu behar da (Serna, 2015). Irakasle batek haurrei irakurtzeko grina pizteko zenbait gauza egin ditzake, eraginkorrena denen aurrean ipuinak kontatzea izanik (Bonafé, 2008 in Colomer, 2010). Hezitzaile askoren ustetan, liburu desberdinak irakurri behar zaizkie umeei, baina Schoesmith-ek (1992) dioenez, obra bera irakurtzea oso positiboa izan daiteke haientzako, istorioak aurrera joan ahala, umek aurreratzen direlako eta emozio desberdinak adierazten dituztelako. Honetaz gain, indibidualki eskolako liburutegian irakurtzea, gelan liburuen txoko bat izatea eta liburuekin bizitako bizipenak partekatzea positiboa izan daiteke irakurzaletasuna bultzatzeko (Colomer, 2010).

Zoritzarrez, eskolan askotan ez da hori gertatzen, eta irakurketa irakasleak ezartzen duen helburuetara soilik mugatzen da. Horrekin ez da esaten irakurritako obrari buruzko iritzia ikasleen artean egiten ez direnik, baizik eta irakasleak ideiak partekatzeko momentu hori ematen diela ikasleei berak buruan duen hitza asmatzeko. Hortaz, horrelako egoerak ematen badira, umek ez dute hausnarketarako denborarik edukiko, irakasleak bakarrik hitz bat asmatzeko eskatu dielako (Wells, 1988 in Colomer, 2010).

Eskolek erabil dezaketen erreminta aproposa irakurketa sustatzeko eskola-liburutegiak dira. Liburutegi horiei buruzko definizio bat ematea zaila da, baina argi dago ikasleentzako lagungarriak izan daitezkeela, baldin eta bertan langile profesionalak aritzen diren eta horiek irakaslearekin harremanetan dauden (Williams, 2013 in Serna, 2015). Miret-en (2008) esanetan, eskola liburutegiei bultzada emateko asmoz sortu diren programei esker, pixkanaka liburutegiak eskola sistemaren parte gisa hartu dira, umeen irakurzaletasunari bultzada emateko tresna apropostzat hartuz (Serna, 2015).

Marko teoriko honen lehenengo paragrafoetan esan bezala, teknologiaren garapenak aldaketak ekarri ditu, eta hori positibotzat hartu behar da, betiere kontuan hartuz baliabide teknologikoak ondo aprobeztatu behar direla. Argi dago gaizki erabiltzekotan arazoak sor daitezkeela, eta umek liburuekin kontaktuan egoteko zailtasun gehiago izango dituztela. Baró-ren (2012) esanetan, eskola-liburutegiek gizartera heldu diren baliabide teknologiko berri horiek erabili behar dituzte, gizarteak



berak horretara moldatzea eskatzen duelako (Serna, 2015). Horrekin ez da esan nahi aurrekoan erabilitako baliabide tradizionalak alde batera utzi behar direnik, baizik eta eskola-liburutegiek beste zerbitzu eta tresna batzuk ere eskaini behar dituztela (Jiménez Fernández, 2012 eta Juárez, 2014 in Serna, 2015). Horretaz aparte, eskola-liburutegietako gako bat umeen interesa pizten duten obrak bertan izatea da, hori eginez gero irakurzaletasuna piztea errazagoa izango baita (Martín eta Muñoz, 2009, in Serna, 2015).

Eskola-liburutegiak aipatzeaz gain, beste liburutegi batzuk marko teoriko honetan agertzea ezinbestekoa da, udal liburutegiak hain zuzen ere. Udal liburutegiak gizartean emandako aurrerapausoen parte dira. Izan ere, hauek ez zeudenean, klase baxuko umeek liburuak eskuratzeko oso aukera gutxi zituzten. Hortaz, liburutegi hauei esker, euskal haur literaturako liburuak denontzako eskuragarriak daudela esan daiteke (Jiménez, 2012).

Udal liburutegien eginkizuna nahiko argia da. Oso garrantzitsua da horietan irakurzaletasuna bultzatzeko programaren bat egotea, azken finean umeentzako onuragarria izango delako. Programa horien bidez, umeek modu ludiko batean irakurtzea eta ekintza desberdinak egitea saiatu behar dira, haurrari inolako presiorik sartu gabe. Horrela, udal liburutegira gerturatzen diren neska-mutilek irakurketaz gozatzeko aukera gehiago izango dituzte, eta irakurtzea egunerokotasunarekin harremanetan jarriko dute (Jiménez, 2012).


### **3.3. Gaur egungo datuak irakurzaletasunarekiko**

Eskolak egindako ahaleginak kontuan hartuz eta euskal haur literaturari buruzko obrak eskuratzeko errazagoa dela kontuan izanik, suposatzen da Euskal Herrian irakurzaletasun maila nahiko altua izan daitekeela umeen artean. Zoritzarrez, FGEE-k 2008. urtean egindako inkesta baten datuek ez dute horrelakorik esaten. Izan ere, gure herrialdean hamalau urtez gorako neska-mutilen % 46k inoiz ez du ezer irakurtzen (Colomer, 2010). Datu hauei erreparatuta, ikus dezakegu irakurzaletasuna bultzatzeko hezkuntza-sistemak erabiltzen duen metodoak hanka sartu duela, eta metodo horri buelta bat emateko beharra dagoela (Serna, 2015).

Datu horiek nahiko kezkarriak diren arren, kontuan hartu behar da hamar urte pasa direla, eta gaur egunean egoera desberdina izan daitekeela. Berriago den inkesta bat kontuan hartzen badugu, ikusiko dugu datu horiek hobetu direla. Hala ere, populazioaren irakurketari buruzko diagnostikoek datu nahiko larriak berriro ere ematen dizkigute irakurzaletasunaren inguruan. Izan ere, *Habitos de lectura 2011*

txostenak esaten du hamalau eta hogeita lau urte bitarteko neska-mutilen artean, % 39,5k ez duela irakurtzen, bai gustuko ez dutelako, bai inolako interesik ez dutelako (Serna, 2015).

Beraz, aurreko paragrafoek aurrerapauso bat adierazten dute irakurzaletasunarekiko. Hala ere, orain dela zortzi urte egindako inkesta bat ez dut uste fidagarriena izan daitekeenik. Hori dela eta, *El Mundo* egunkariak (2018) egindako beste inkesta baten datuak komentatuko ditut, nahiko adierazgarriak direnak. Horretan ikusten den bezala, inkestatutako % 34,2 da irakurtzen ez duena. Beraz, beste % 65,8k irakurtzen du, baina hurrengo grafikoan ikusiko den moduan, horrek ez du esan nahi irakurzaleak direnik.



1. Grafikoa: Irakurzaletasun-mailaren datuak 2017. urtean.

Iturria: Ministerio de Educación (2017)

Nahiz eta inkesta honek lagina gisa edozein adinetako pertsonak hartzen dituen, datu bezala komentatzen da modu ludiko batean irakurtzen duten horien artean batez ere umeak eta gazteak daudela. Izan ere, bederatzirekita baino gutxiagoko ume gehienek haien aisialdian irakurtzen dute; hamar eta hamalau urte bitarteko ume eta gazteen artean, ia % 80k aisialdian irakurtzen du. Datuek txarrera egiten duten hamabost eta hamazortzi urte bitarteko gazteetan, baina horrek ez dio eraginik egiten lanaren aztergaiari (Plaza, 2018).



Marko teoriko honen hirugarren azpiatalean aipatu bezala, aurrerapen teknologikoa haurren eta irakurketaren arteko eragileenetariko bat da. Horrek esan nahi du haurrek gailu teknologikoekin ibiltzeko joera dutela. Hortaz, ez du zertan esan nahi irakurketa bigarren plano batera pasatzen denik. Izan ere, % 19,4k paperean zein gailu digitalekin irakurtzen du. Beraz, horrek esan nahi du aurrerapen teknologikoa ere irakurketarekin harremanetan egoteko erabiltzen hasi dela (Ministerio de Educación, 2017 in Plaza, 2018).

Aurreko paragrafo eta azpiataletan emandako informazio guztia laburbilduz, argi dago euskal haur literaturari buruzko obrak topatzea gaur egungo baliabideei esker errazagoa dela, batez ere liburutegietan eta eskoletan egin diren ahaleginak direla medio. Hala ere, irakurzaletasuna bultzatzeko prozesuan familiek eta irakasleek ere ardura hartu behar dute, umeez egunerokotasunean modu ludiko batean irakurtzeko eta irakurketa gozamenarekin harremanetan jartzeko. Denboraren poderioz argi dago ahalegin pilo bat egin direla haur eta gazte literaturaren norabidea zuzena izateko, baina estatistikek datu negatiboak eskaintzen dizkigute haurren eta irakurketaren arteko harremanean. Ondorioz, argi dago zerbait aldatu behar dugula irakurzaletasuna bultzatzeko orduan, erabilitako metodoak arrakastatsuak izan ez direla frogatu delako.

### 3.4. Curriculumarekiko lotura

Mota honetako lan bat curriculumak dioen horretan oinarritu behar da, irakasle bezala curriculumaren jarraipena garrantzitsua delako. Kasu honetan, landa-ikerketa hau hirugarren mailako neska-mutilen eta irakurketaren arteko harremana aztertzeko aurrera eraman izan dut.

Beraz, Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloko konpetentzia eta eduki multzoetan kokatu behar dut. Oinarrizko diziplina barneko konpetentziei dagokionez, lehenengoa landuko litzateke, hau da, *Hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia*. Hona hemen konpetentzia honen definizioa: “Konpetentziaren definizioa Hitzezko eta idatzizko testuak erabiltzea da, euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan, bizitzako egoera guztietan egoki, eraginkortasunez eta hizkuntza aniztasuna errespetatuz komunikatzeko. Horrekin batera, heziketa literarioa lantzean datza, nork bere burua eta ingurunea hobeto ezagutzen laguntzeko” (DEKRETU 236/2015).

Konpetentzia honen osagaiei dagokienez, batez ere laugarrena landuko litzateke: “Literatura-testuak interpretatzea eta balioestea, testuen esanahia modu



partekatuan eraikita; eta, horren bidez, mundua ulertzea, literatura-ondarea banako eta taldeko esperientzia sinbolizatzeko modu gisa balioestea, norberaren kultura-nortasuna eraikitzea eta sentsibiltate estetikoak garatzea” (DEKRETU 236/2015).

Etapako helburuen artean, modu argi batean laugarrena landuko litzateke: “Hainbat generotako literatura-testuak irakurtzea eta entzutea, eta, hala, literaturaz gozaten ikastea, horrek sentsibiltate estetikoan aurrera egiteko, norberaren hizkuntza-ondarea aberasteko eta identitate kulturala eraikitzeke aukera ematen duen aldetik” (DEKRETU 236/2015).

Lehen zikloko eduki multzoetan ere laugarrena landuko litzateke, hau da, *Literatura-hezkuntza*. Honetan, azpiatal hauek landuko lirateke:

- Zenbait euskarritan emandako literatura klasikoko eta haur literaturako lanak (ipuin, poema, kontakizun, ...) modu gidatuan irakurtzea, eta, gero, norberaren esperientziak besteenekin kontrastatzea.
- Ipuin, kontakizun, poema eta bertso laburrak denen artean irakurtzea eta entzutea.
- Literatura-testuak modu dramatizatuan irakurtzea eta abesti, poema eta bertsoak errezipitazioa.
- Ikasgelako eta eskolako liburutegia eta baliabide digitalak erabiltzea.
- Ikasgelako nahiz eskolako liburutegia eta baliabide digitalak erabiltzea.
- Ahozko nahiz idatzizko literatura-generoak: genero narratiboa, lirikoa eta dramatikoa.
- Literatura-testua irakurtzearen aldeko interesa izatea.

**(DEKRETU 236/2015, 122. Orr)**

Beraz, hori guztia kontuan izanik, argi dago landutako gaiak Lehen Hezkuntzako curriculumarekin harreman handia duela. Gainera, aukeratutako adina nahiko aproposa da, kompetentziak eta edukiak lehenengo ziklora ondo moldatzen direlako.





#### 4. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

Mota honetako lan bat aurrera eramateko, ezinbestekoa da argi izatea zein helbururekin lan egiten duzun. Hori dela eta, ezinbestekotzat hartzen dut helburu orokor bat eta zeharkako helburu batzuk zehaztea. Lanaren justifikazioan aipatu dudan moduan, umeei gaur egungo aurrerapen teknologikoen eraginez irakurketarekin harremana galdu dutela uste dut, beraz, helburu orokortzar hori aztertzea hartuko dut. Hau da, gaur egungo haurrek zer nolako harremana duten haur literaturarekin aztertzea, eta bereziki, euskal haur literaturarekin.

Hori aztertzeko, zenbait azpi-puntu aztertuko ditut, zeharkako helburu gisa hartuko ditudanak: gurasoek nola sustatzen duten irakurketa; egungo umeei norekin irakurtzen duten; irakurtzen dituzten liburuak nongoak diren; eta zer generoak diren haurrek irakurtzen dituzten obrak.

Hipotesiei dagokionez, esan beharra dago lanaren azkeneko ondorioak ateratzeko erabiliko ditudala. Trapagarango eskola bakoitzeko hipotesi bana egin dut, eta horretaz aparte, udal liburutegiko harreragileak izan dezakeen iritzinari buruzko hipotesia ere sortu dut: La Escontrilla eskolako umeei eskolatik agindutako liburu asko irakurtzen dituzte, bertan, nire ikasle garaian oinarrituz eta hirugarren praktikaldian ikusi dudanaren arabera, irakurketaren sustapena modu argi batean egiten delako (Lehenengo hipotesia); San Gabriel ikastetxeko gurasoek ez dituzte haien seme-alabak udal liburutegira bidaltzen, erdigunetik urrun bizi baitira gehienak (Bigarren hipotesia); Itxaropena Ikastolako umeei euskaraz gehien irakurtzen dutenak dira, herriko familia euskaldunek batez ere ikasten dutelako bertan (Hirugarren hipotesia); Franciscanas de Montpellierreko ikasleek batez ere gaztelaniazko liburuak eskatzen dizkiete haien gurasoei, bere sorreratik orain dela gutxi arte B ereduko zentro bat izan delako (Laugarren hipotesia); eta azkenik, Trapagarango haurren laurdenak baino gutxiago udal liburutegia erabiltzen du (Bosgarren hipotesia).



## 5. METODOA

### 5.1. Metodologia

Euskal Herriko eskoletako neska-mutilek euskal haur literaturarekin zer nolako harremana duten aztertzeko, galdetegi batzuk prestatu ditut, non emaitza guztiak kualitatiboak izan diren. Beraz, ikerketa honetan faktore desberdinak aztergaitzat hartuko ditut, aztergai nagusiari erantzuna emateko jomugarekin. Aipaturiko azpigai horiek honako hauek dira: ea gurasoek nola sustatzen duten irakurketa, ea haurrek norekin irakurtzen duten, ea zer nolako liburuak irakurtzen dituzten, irakurritako liburuen generoa zein den, etab.

### 5.2. Erabilitako tresnak

Ikerketa hau bideratzeko erabili izan dudana tresna nagusiak bi inkesta izan dira, bata Trapagarango lau eskoletan egin dudana eta bestea udal liburutegiko harreragileari egindakoa. Galdetegi baten bidez datuak jasotzea hoberena zela pentsatu nuen. Izan ere, erantzuleak planteatzen diren galderari modu azkar eta zehatz batean erantzuteko aukera du, eta horrek familia gehiagoren erantzuna jasotzeko aukera igo zezakeen.

Familiei bideratutako galdetegiak hamasei galdera ditu, eta horietatik hamabi irakurketarekin eta irakurzaletasunarekin harremanetan daude. Horietan, lanaren aztergaia aztertzeko galderak topa daitezke. Beste lau galderak umearen testuinguruari buruzkoak dira, eta bertan familia motari buruzko galderak batez ere agertzen dira.

Udal liburutegiko inkestari dagokionez, honek hamaika galdera dituela esan beharra dago, eta guztiek helburu berdina dute, Trapagarango haurrek euskal haur eta gazte literaturarekin zer nolako harremana duten aztertzea.

Galdetegia bi hizkuntza desberdinetan idatzia dago, euskaraz eta gaztelaniaz. Nahiz eta belaunaldi berriko guraso askok euskaraz dakiten, herri bizkaitar hau nahiko erdalduna da, ume gehienek ama-hizkuntza gaztelania izanik. Beraz, gurasoentzako mesedegarria da bi hizkuntzatan inkesta betetzeko aukera ematea. Erantzun posiblei dagokionez, aurreko puntuan aipatu bezala kualitatiboak dira, eta gurasoek erantzun anitzak dituzte borobildu ahal izateko. Azken galdera da kuantitatiboa den bakarra, bertan umeei zenbat liburu erosten dizkieten urtero galdetzen delako.



### 5.3. Parte hartzaileak

Landa-lanaren bidezko ikerketa hau aurrera eramateko, Trapagarango lau eskola desberdinetatik inkestak banatu ditut, hirugarren mailako ikasleen gurasoek betetzeko. Hortaz, haiek izan dira lan honen parte-hartzaile nagusiak. Eskoletako hirugarren mailako familiez gain, herriko udal liburutegiko harreragileak ere parte hartu du. Berak ere lehen aipaturiko inkesta bete du, bere lanean ikusten duena oinarritzat hartuz. Modu honetan, gurasoek aipaturiko datuak liburutegiko datuekin alderatu ditzaket, eta inkesten emaitzak liburutegiko harreragileak ikusten duenarekin bat datozen ala ez konfirmatu dezaket.

Esan bezala, eskolek duten nortasuna haien artean nahiko desberdina da, beraz, lagin handia hartu dudala ziurtatzen naiz, herrian dagoen aniztasuna dela eta. Hortaz, inkesta guztien emaitzak Euskal Herriko errealitatetik gertu egongo direla deritzot.

Esan bezala, eskolak nahiko desberdinak dira haien artean. Guztira lau dira, bi publiko (La Escontrilla eta San Gabriel) eta itunpeko beste bi (Itxaropena Ikastola eta Franciscanas de Montpellier). Eskola publikoen artean ez daude desberdintasunik nortasunari dagokionez, biek haien burua euskaldun, publiko, laiko eta integratzaile gisa definitzen dutelako. Hala ere, esan beharra dago La Escontrilla eskolako ume gehienak Trapagarango erdigunean bizi direla, eta San Gabriel eskolakoak herriko auzo desberdinetan.

Itunpeko eskola bien artean, aldiz, desberdintasunak nabarmengarriak dira. Itxaropena Ikastola familien ikastola kooperatibo bat da, non euskal kulturaren transmisioa eta euskararen irakaskuntza helburu diren. Franciscanas de Montpellier ikastetxearen kasuan, esan beharra dago hamar urte gutxi gorabehera daramala D ereduko ikastetxe moduan, lehen B ereduko zentroa zen eta. Herriko kristau eskola bakarra da, eta elizaren ondoan kokatzen da.

Deskribaturiko eskola guztietatik 97 inkesta banatu nituen (La Escontrillan 22, San Gabrielen 23, Itxaropena Ikastolan 25 eta Franciscanas de Montepellierren 27). Nahiz eta gurasoen parte hartzea handiagoa izatea gustatuko litzaidakeen, esan beharra dago banatutako inkestetatik berrogeita hamahiru erantzun jaso nituela, hau da, % 54,6. Zifra honekin, aztertu beharrekoa aztertzeke nahikoa izan dut.



## 5.4. Prozesua

Jarraitutako prozesua nahiko sinplea izan da. Aldez aurretik, ikerketaren helburuak eta hipotesiak adostu genituen tutoreak eta biok. Ondoren, inkestei eredia eman genien, eta bertan sar nituzkeen galdera motak komentatu genituen. Behi hori zehaztuta, inkestak prestatzen hasi nintzen, eta bukatu nituenean irakasleak onarpena eman zidan, eskoletatik banatzen hasteko.

Eskola guztietan ez dut prozesu bera jarraitu, hurrengo lerroetan ikusiko den moduan. La Escontrilla eskolan zuzendariarekin hitz egin nuen, eta berak esan zidan bera arduratuko zela inkestak banatzeaz eta jasotzeaz. Esan beharra dago ez nuela arazorik izan, nire txikitako eskola delako eta hilabete bat lehenago praktikak han egin nituelako.

San Gabriel eskolara hiru egun geroago gutxi gorabehera joan nintzen. Kontuan hartu behar da San Gabriel Trapagarango auzo bat dela, eta ez dagoela erdigunetik hain gertu, beste hiru zentroekin alderatuz. Kasu honetan hirugarren mailako irakasleari zuzenean eman nizkion, nire lagun min baten ama delako eta berarekin konfiantza handia dudalako.

Itxaropena Ikastolara eta Franciscanas de Montpellier ikastetxera egun berdinean joan nintzen, eta egun zehatz batean inkestak hartuko nituela adostu nuen bi zentroekin. Haien partetik ez nuen arazorik izan inkestak ematerako orduan, baina Franciscanas de Montpellierren kasuan, inkestak hartzera joan nintzenean ikasketa buruak esan zidan inkestak irakasleari eskatzea ahaztu zitzaiola. Asteazkena zen, eta umeek aste santua zuten aurretik, beraz, aste santua pasa eta gero inkesten bila joan behar izan nuen, eta horrek emaitzen atala egitea atzeratu zuen.

Inkestak jaso eta gero, emaitzak modu objektibo batean idatzi nituen, eta gero, nire hipotesiekin alderaketa bat egin nuen. Horrek, ondorio batzuetara eraman ninduen, lanaren ondorioen atalean ondo ikusiko den moduan.

Bukatzeko, datuen interpretazioa egin eta gero, hobekuntza proposamenen atala sortu nuen. Hori egiteko, lan honetatik eskuratutako emaitzak kontuan hartu nituen, gaur egungo irakurzaletasun maila hobetzeko. Honetaz gain, lagina zabalagoa izateko proposamena ere aipatu nuen, lan honen emaitzak fidagarriagoak eta zehatzagoak izateko.

## 6. EMAITZAK

Emaitzei dagokionez, esan beharra dago agerian egongo diren datuak guztiz objektiboak izango direla, Trapagarango lau eskoletako gurasoek erantzundakoa eta herriko liburutegiko langile batek aipatutakoa agertuko delako.

### La Escontrilla Eskola - Publikoa

Eskola publiko honetan hogeita bi inkesta banatu nituen, eta horietatik hamaika jaso nituen, hau da, hirugarren mailako gurasoen % 50. Familia guzti horiek familia tradizionalak dira, eta seme-alabak amarekin eta aitarekin bizi dira, haien ama-hizkuntza gaztelania izanik. Familien testuinguruarekin bukatzeko, esan beharra dago % 63,3k jatorri euskalduna duela, eta gainontzekoek jatorri euskaldun-espainiarra, ama edo aita espainiar estatuko beste leku batean jaiok direlako.

Irakurketaren gain barneratzen joateko, inkestetan guztiek aipatzen dute haien familietan irakurketa bultzatzen dela. Hala ere, bakarrik % 27,3k udal liburutegia erabiltzen du irakurketa sustatzerako orduan, eta gainontzekoak beste metodo batzuetaz baliatzen dira. Esaterako, % 45,4k esaten du haien etxeetan umeak gurasoekin irakurtzen duela edota gurasoek haurraren aurrean irakurtzen dutela, umeari eredu emanaz; honetaz gain, beste lau familiek esan dute haiek egiten duten bakarra haurrari irakurri behar duela esatea dela.

Aurreko emaitzei erreparatuz, hurrengo galderaren emaitzak suposatzen modukoak dira. Izan ere, aurrekoan ia erdiak komentatu du umearekin etxean irakurtzen duela, eta zortzigarrenean emaitzak antzekoak izan dira. Oraingoan, % 54,5k esaten du haurrak gurasoekin irakurtzen duela etxean; beste % 27,3ren esanetan, umeak anai-arrebarekin irakurtzen du, eta beste % 18,2k baino ez dio haurrak bakarrik eta modu ludiko batean irakurtzen duela.

Irakurritakoari dagokionez, denek esaten dute eskolako liburuak irakurtzen dituztela, beraz, eskolarekiko konpromisoa ezin hobea da. Bederatzigarren galdera honetan, guraso batzuk aukera bat baino gehiago aukeratu dute, eta inkestaren seigarren galderan jasotako emaitzak galdera honetara transferitzen dira, % 27,3k haien seme-alabak udal liburutegiko liburuak irakurtzen dituela esaten duelako, eta honetaz aparte, etxeko liburuak ere irakurtzen dituelako; honetaz aparte, % 36,4k aipatzen du etxetik hartutako liburuak soilik erabiltzen dituztela. Gainontzeko familiek, hau da, inkesta erantzun duten hamaika familietatik lauk ez dute beste aukera bat markatu, beraz, haien egoera da umeak bakarrik eskolan bidaltzen dizkioten liburuak irakurtzen dituela baino ez.



Aipaturiko liburu horien hizkuntzari dagokionez, aipatzekoa da guztiek euskarazko eta gaztelaniazko liburuak irakurtzen dituztela, eta bi familiek esaten dute haien seme-alabek ingelesez ere zenbait liburu irakurtzen dituztela. Galdera honen erantzunak oso argiak dira hamaikagarren galderaren erantzunei erreparatuz gero, % 90,9k, hau da, familia guztiek bat izan ezik garrantzia ematen diotelako euskaraz irakurtzeari.

Familien ahalegina baloraturaz, eta are gehiago kontuan izanik % 81,8k irakaslearekin irakurketaren inguruan hitz egin duela, suposatzen da haurrek irakurzaletasunarekin harremanetan egoteko aukera handia dutela, baina hamahirugarren galderak ez du hori esaten. Izan ere, % 63,6k aipatzen du bere seme-alabak ez duela libururik eskatzen. Hortaz, bakarrik lau familietan liburuak eskatzen dira, eta horietatik % 100k dio eskatutako liburu horiek askotan euskaraz izaten direla.

Eskola publiko honen emaitzekin bukatzeko, aipatzekoa da guztiek haien seme-alabak abenturazko eta fantasiarazko liburuak irakurtzen dituela diotela. Gainera, urtero erositako liburu kopuruari erreferentzia egiten diotenean, nabarmentzen da guztiek erosten dizkiotela liburuak haien seme-alabei, batez bestekoa 5,6koa izanik. Oso deigarria da bi familiek gutxienez hamar liburu erosten dituztela, baina kasu honetan, inkesta guztiari erreparatuz, datu horiek normalizat har daitezke, familia horien seme-alabek liburuak eskatzen dituztelako.

### **San Gabriel Ikastetxea - Publikoa**

Eskola publiko honetan hogeita hiru inkesta banatu nituen, eta hamabi erantzun jaso nituen. Inkesta erantzun duten familien % 66,7 tradizionala da; % 25ren kasuan, umea amarekin bizi da, gurasoak bananduak daudelako; eta beste % 8,3aren kasuan, haurra amarekin bizi da, guraso bakarreko familia batean. Hauen jatorriari dagokionez, bakarrik bi aukera desberdin egon dira: aita eta ama euskaldunak izatea (% 83,3) edo familia Espainiatik at etorritakoa izatea (% 16,7). Nahiz eta familia gehienak euskaldunak izan, guztiek diote bere ama-hizkuntza gaztelania dela, familia atzerritar batek izan ezik, gaztelania edo euskara ez den beste ama-hizkuntza bat dutelako.

Bosgarren galderan gehienek (% 91,7) etxean irakurketa sustatzen dutela esaten dute. Soilik familia batek ez du irakurketa sustatzen, haien esanetan, etxean ez dutelako irakurtzen, eta bere seme-alabak bere jokabidea jarraitzen du. Irakurketa bultzatzeko estrategien galderan, bakarrik % 16,7k dio udal liburutegira noizbait joaten direla, eta horretaz aparte, umearen aurrean eta berarekin batera irakurtzen dutela; % 25k umearekin etxean irakurtzen dutela dio, eta horretaz aparte, irakurtzea



garrantzitsua dela esaten diotela; beste bi familiek esaten dute (% 16,7) umearen aurrean irakurtzen dutela, eta beste lauk (% 33,3), umeari irakurri behar duela esaten diote. Irakurketa bultzatzen ez duen familiak ez dio galdera honi erantzun.

Zortzigarren galderan, familia gehienek esaten dute haurrak gurasoekin batera irakurtzen duela (% 58,3). Gainontzekoen esanetan, % 25k haurrak modu ludiko batean eta bakarrik irakurtzen duela dio; eta % 8,3k dio anai-arrebekin batera ere irakurtzen duela. Aurrekoan gertatu den moduan, irakurtzen ez duen familiak ez du galdera hau erantzun.

Bederatzigarren galderak haurrak zer irakurtzen duen galdetzen du, eta San Gabriel ikastetxeko hirugarren mailako gurasoen gehiengoak esaten du bere seme-alabak etxeko eta eskolako liburuak irakurtzen dituela (% 58,3k bi aukerak markatu ditu). Udal liburutegiko liburuei dagokionez, bi familiek diote euren haurrek handik zenbait liburu hartzen dituztela. Gainerako familien arabera (% 25), haien seme-alabek soilik eskolako liburuak irakurtzen dituzte, eta horien artean, irakurketa bultzatzen ez duen familia aurkitzen da. Beraz, datu hauen arabera, ikus daiteke familiek eskolarekiko konpromisoa dutela.

Liburu horien hizkuntzari dagokionez, guztiek euskarako eta gaztelaniako aukera biribildu dute, eta udal liburutegira joaten diren bi familiek diote euren umeez ingelesezko liburuak irakurtzen dituztela. Hortaz, euskaraz irakurtzeari garrantzia ematen dioten familia kopurua handia da. Izan ere, hamaikagarren galderak hamar euskaraz irakurtzeari garrantzia ematen diotela esaten dute.

Ikastetxe honetan, familien % 91,7k irakaslearekin irakurzaletasunaren inguruan hitz egin du, zifra hori nahiko positiboa izanik. Hala ere, familien % 50k dio haien seme-alabek liburuak eskatzen dituztela, eta liburu horiek askotan euskaraz izaten dira, generoa abentura edo fantasia izanik. Bi familien esanetan, haien seme-alabek eskatzen dituzten liburu guztiak gaztelaniaz dira, eta kasu honetan, aurreko generoak mantentzen dira, baina beldurrezko generoa ere agertzen da.

Azkeneko galderaren erantzunei dagokionez, esan beharra dago irakurketarekiko inplikazio handia duten familiek batez beste hamar liburu erosten dizkietela haien seme-alabei. Inplikazio gutxiago duten familietan zifra hori nabari jaisten da. Izan ere, % 16,7k ez dio libururik erosten bere seme-alabari, eta beste familietan gehienez jota hiru liburu erosten dizkiete batez beste.



## Itxaropena Ikastola - Itunpekoa

Trapagarango Itxaropena Ikastolako hirugarren mailako gurasoen artean hogeita bost inkesta banatu nituen, erantzunak hamabost izanik. Familia guzti hauek euskaldun jatorria dute, baina haien seme-alaben ama-hizkuntza gaztelania da. Familia motari dagokionez, % 80a familia tradizionalak dira, eta gainontzeko gurasoak bananduak dauden arren, gehiengo seme-alabak amarekin bizi dira (bakarrik batek erantzun du haurra amarekin eta aitarekin bizi dela).

Irakurketaren inguruko galderetan murgilduz, esan beharra dago familia guztiek irakurketa sustatzen dutela, eta kasu honetan, % 33,3k dio udal liburutegira joaten direla eta haurrarekin batera irakurtzen dutela. Zifra hori nabarmentzekoa da, baina beste familien erantzunak ere kontuan hartu behar dira; % 26,7aren arabera, irakurketa sustatzeko erabiltzen duten metodoa umearen aurrean eta umearekin batera irakurtzea da; % 20k umearekin batera irakurtzen du, eta gainontzeko guztiek (% 20) haurrei irakurri behar duela esaten diete.

Nahiko emaitza positiboak aurki ditzakegu aurreko atalean, baina hurrengoan ematen direnak ere positiboak dira, % 50k komentatzen duelako bere seme-alabak modu ludiko batean irakurtzen duela. Honetaz aparte, esan beharra dago gainontzekoen kasuan gurasoekin irakurtzeko joera nabaria dela, anai-arrebak alde batera utzi gabe (% 20k gurasoekin eta anai-arrebekin irakurtzen du).

Irakurritakoari dagokionez, jasotako erantzunek diote ikastolatik jasotako liburu gutxi irakurtzen dituztela. Izan ere, % 40k dio haien seme-alabek eskolako liburuak eta etxeko liburuak irakurtzen dituztela; beste % 26,7k soilik etxeko liburuak; eta gainontzeko % 33,3k etxeko eta udal liburutegiko liburuak.

Itxaropena Ikastolatik jasotako emaitzek esaten dute familia guztiek garrantzia ematen diotela euskaraz irakurtzeari, baina familia gehienek ere gaztelaniako irakurketa sustatzen dute, izan ere, bik baino ez euskarazko liburuak irakurtzeko proposamena soilik egiten dute. Honetaz gain, komentatu beharra dago % 20k euren seme-alabek ingelesez ere irakurtzen dutela diola.

Orokorrean nahiko emaitza positiboak jasotzen ari ditut ikastola honetan, eta are gehiago kontuan izanik denek irakaslearekin irakurketaren inguruan hitz egin dutela esaten dutenean eta haien seme-alabek liburuak eskatzen dizkietela aipatzerakoan. Hala ere, denek ez dituzte euskarazko liburuak eskatzen, % 26,7k esaten duelako gaztelaniazko liburuak soilik eskatzen dizkietela.





Liburu horien generoari dagokionez, nabarmentzekoa da genero gehiago agerian daudela. Aurrekoetan bezala, abenturak eta fantasiak pisu handia hartzen dute, baina oraingoan beldurrezko, zientzia fikziozko eta *beste genero bateko* (hamalagarren galderako azken aukera) ere agertzen dira.

Azkenik, erositako liburu kopuruari dagokionez, esan beharra dago zifrak altuak mantentzen direla, inkesta guztien batez bestekoa 6,6koa delako. Atal honetan, aipatzekoa da udal liburutegiko liburuak irakurtzen dituztenek ez dituztela hainbeste libururik erosten, beste leku batean eskuragarri dituztelako.

### **Franciscanas de Montpellier Ikastetxea - Itunpekoa**

Trapagarango itunpeko eskola honetan hogeita zazpi galdetegi banatu nituen, hirugarren mailako neska-mutilen gurasoek betetzeko, eta haietatik hamabost erantzun jaso nituen. Erantzun duten familia guztiak tradizionalak dira, eta guztien jatorria, hirurena izan ezik, euskalduna da. Oraingoan ama-hizkuntza euskara duten bi familia agertzen dira, eta gainontzekoek haien seme-alabei gaztelaniaz egiten diete.

Familia guztiek irakurketa bultzatzen dutela diote, batez ere haurrari irakurri behar duela esanez. Bakarrik % 20 udal liburutegira joaten da, eta beste % 26,7 batek umearekin batera edo umearen aurrean irakurtzen du.

Etxean, ume guztiek gurasoekin irakurtzen dute, denek gurasoen aukera markatu dutelako. Hala ere, lau familiek beste aukera bat borobildu dute, eta emaitzak hauek izan dira: % 20k dio haurrak modu ludiko batean irakurtzen duela, inoren presentziarik gabe, eta beste % 6,7k aipatzen du umeak era bere anaiarekin batera irakurtzen duela.

Irakurritakoari dagokionez, eskola honetako familiek ia ez diete eskolako liburuei aipamenik egiten, gehienek etxeko liburuak irakurtzen dituztela esaten dutelako. Soilik % 13,3k aukera guztiak markatu ditu, eta beste familia batek esaten du umeak etxeko liburuak eta udal liburutegikoak irakurtzen dituela. Beraz, jasotako hamabost inkestetatik, % 20 batek udal liburutegiko liburuak irakurtzen ditu.

Liburu horien hizkuntzari dagokionez, esan beharra dago gehienek euskararen eta gaztelaniaren erantzuna markatu dutela. Kasu batzuetan, soilik gaztelaniazko erantzuna borobildu egin da, eta batek bakarrik euskararen erantzuna markatu du. Deigarria da ingelesezko liburuen aukera inork aukeratu ez izatea.



Irakaslearekin irakurketaren eta irakurzaletasunaren inguruan hitz egin duten galdetzen zaienean, bi izan ezik, denek baietz aipatu dute. Hamahirugarren galderan oso emaitza aipagarriak eman dira, izan ere, aurreko galderan ezetz erantzun duten bi familiek haien seme-alabek liburuak eskatzen dizkietela aipatzen dute. Gainontzeko familien erantzunei erreparatuz, ikus daiteke gehiengoak (% 73,3) ez dituela libururik eskatzen. Beraz, liburuak eskatzen dituzten kopurua lau da.

Denek komentatu dute euskaraz irakurtzeari garrantzia ematen diotela, baina hamabosgarren galderan % 26,7k dio haurrak soilik gaztelaniazko liburuak eskatzen dizkiola. Beste kasuetan, bigarren aukera borobildu dute, hau da, askotan euskarazko liburuak eskatzen dizkietela, baina ez beti.

Liburuen generoari dagokionez, aipatu beharra dago abenturazko eta fantasiako generoek pisu handia duten arren, kirolezko liburuek ere pisu handia hartu dutela oraingoan. Zientzia fikziozko liburuei ere aipamena egiten zaio, eta bi familiek “arestian aipatu ez den beste genero batekoak” markatu dute.

Bukatzeko, azkeneko galderaren erantzunak komentatuko ditut. Kasu honetan, inplikazio handiko familia gutxiago ikusten dira, batez ere irakurketa sustatzerako orduan, beraz, hemengo emaitzak normaltzat har daitezke. Izan ere, erositako liburuen batez bestea 3,6koa da, familia gehienek erantzunak 4 eta 2 izanik. Kasu batean, guraso batzuek aipatu dute gehienez jota haien seme-alabari liburu bakarra erosten diotela, bere anai nagusiaren liburuak irakurtzen dituelako.

### **Trapagarango Udal liburutegia**

Udal liburutegiko harreragileak erantzundako inkestaren erantzunei erreparatuko zaio atal honetan. Beraren esanetan, umeak irakurtzera, etxerako lanak egitera eta ordenagailuekin egotera joaten dira batez ere liburutegira. Normalean, haurrak bakarrik edo lagunekin joaten direla dio, eta gutxi batzuetan gurasoekin. Irakasle partikularrei dagokionez, esan beharra dago debekatua dagoela haur bati eskola partikularrak bertan ematea.

Irakurtzera joaten diren neska-mutilengan arreta jarritz, aipatzekoa da adinaren arabera bakarrik irakurtzen dutela edo norbaiten laguntza behar dutela. Normalean, nagusiagoak direnak bakarrik aritzen dira, eta haur txikiek haur-gela batean norbaitekin irakurtzeko aukera dute.



Gurasoen parte-hartzeari dagokionez, berak aipatzen du ume txikiekin batez ere joaten direla, baina ez dutela galderarik egiten euskal haur-literaturako obren inguruan.

Umeez irakurtzen dituzten generoen inguruko galderak, harreragileak dio batez ere abenturazko, fantasiako edo kirolezko liburuak irakurtzen dituztela, lau eskoletako inkestetan aipatzen den moduan. Honetaz aparte, komikiek eta youtuberren inguruko liburuek ere eskakizuna dutela.

Liburuen hizkuntzari erreparatuz, berak aipatzen du euskarazko eta gaztelaniazko eskaintza egiten dutela Trapagarango liburutegian. Hala ere, eskaintza hori batez ere gaztelaniaz da, berak esaten duen moduan, liburutegira maiztasun handiagoarekin gerturaten diren neska-mutilek gaztelaniazko obrak eskatzen dituztelako.

Bederatzigarren galderan, berak komentatzen du herriko liburutegian irakurketa bultzatzeko programa bat dagoela, baina zoritzarrez, ez duela arrakasta handirik herriko umeen artean.

Beraz, beraren esanetan, Trapagarango hurrek orokorrean ez dute irakurtzeko ohitura hori. Izan ere, astero gutxi gorabehera ume berdinak gerturaten dira, bezero berririk jaso gabe.



## 7. DATUEN INTERPRETAZIOA

GrAL honen zazpigarren atal honek bi azpiatal nagusi izango ditu, lanean garrantzia handia dutenak. Alde batetik eztabaida bat egongo da, eta bertan, jasotako emaitzen arteko desberdintasunei erreferentzia egingo zaie. Trapagarango eskola publikoen eta itunpekoen artean dauden diferentziak aztertuko dira, eta honetaz aparte, itunpeko bien artean ematen diren alderaketak ere aztertuko dira, eskola bien nortasuna oso desberdina dela ematen duelako.

Bestetik, ondorioen atala ikusgai egongo da. Ondorioak bitan banatuta egongo dira. Hasieran, txosten honen laugarren atalean egindako hipotesiak baieztatu edota ezeztatuko ditut; eta geroago, lanean zehar inkestetatik eskuratutako emaitzetatik atera ditudanak aipatu eta azalduko ditut.

### 7.1. Eztabaida

#### ***Eskola publikoen eta itunpekoen arteko desberdintasunak***


Metodoaren atalean esan bezala, herri bizkaitar honetako eskola publikoak haien artean nahiko berdinak dira, haien nortasuna eskutik lotuta doalako. Itunpekoen kasuan, alde handia dago Ikastolaren eta kristau eskolaren artean. Hala ere, bietan lortu ditudan emaitzak bateratu ditut, eskola publikoen emaitzekin alderaketa bat egiteko. Agerian egongo diren desberdintasunak batez ere arestian aipaturiko aztergaietan oinarrituta egongo dira.

Irakurketa sustatzerako orduan, itunpeko eskoletako guraso orok diote irakurketa sustatzen dutela. Publikoko gurasoen kasuan, gehienek ere baietz esaten dute, nahiz eta batek ezetz esan. Kasu horretan, familia horrek dio etxean ez dutela irakurtzeko ohiturarik, eta horregatik ez diotela euren seme-alabari liburuak irakurtzeko esaten. Beraz, ikus daiteke orokorrean familia guztiek irakurketa sustatzeko asmoa dutela.

Hori lortzeko erabiltzen duten metodoei dagokionez, esan beharra dago orokorrean emaitzak antzekoak izan direla. Hala ere, atal honetan komentatu behar da udal liburutegia oso gutxi erabiltzen dutela: eskola publikoen artean soilik % 22k erabiltzen du, eta itunpekoen artean % 26,65k.

Itunpeko eskoletako ikasle gehiago herriko liburutegira joatea normalizat har daiteke hurrengo datuei erreparatzen badiegu. Izan ere, eskola publikoko haurren % 91,65k eskolako liburuak irakurtzen ditu, nahiz eta etxeko zein udal bibliotekako obrak ere irakurtzen dituzten. Itunpeko eskolen kasuan, bakarrik umeen % 26,65k

eskolako liburuak irakurtzen ditu, batez ere etxetik hartutako obrak irakurtzen dituztelako.



2. *Grafikoa:* Eskolako liburuen irakurketaren alderaketa, Trapagarango eskolen artean.

Grafiko honetako datuak ikusita, argi dago itunpeko eskolako familiek udal liburutegira joateko joera handiagoa izatea normala izan daitekeela. Azken finean ulertu behar da eskolatik liburuak irakurtzeko agindua ez badietela ematen, familiek irakurketaren sustapena beste leku batean egin behar dutela, eta udal biblioteca horretarako oso leku aproposa da.

Zalantzarik gabe, aurreko datua da publikoen eta itunpekoen artean ematen den desberdintasunik nabarmenena. Hala ere, alderaketa gehiago egin daitezke, irakurritako liburuen hizkuntzan esaterako. Izan ere, itunpeko eskoletako ikasleek, haien familien arabera, batez ere gaztelaniazko edota euskarazko liburuak irakurtzen dituzte. Eskola publikoko ikasleen kasuan, aipaturiko bi hizkuntza horiek mantentzen dira, baina ingelesa ere agertzen da. Honek ez nau harritzen, praktikak La Escontrilla eskolan egin ditudalako eta ingeleseko irakasleak ikasleei ingelesezko obrak irakurtzeko aukera ematen dielako. San Gabriel ikastetxearen kasuan imajinatu dezaket antzeko egoera bat ematen dela.

Irakasleen ildotik jarraituta, aipatzekoa da itunpeko eskoletako guraso gehienek (% 93,1) diotela irakaslearekin irakurketaren inguruan hitz egin dutela, honen inguruko gomendioak eskatzeko, alegia. Eskola publikoen kasuan zifra hori jaisten da; hala ere, datuak ere nahiko positiboak dira, % 86,7k irakasle tutorearekin honen inguruan hizketan aritu delako. Etorbizuneko irakasle moduan, zifra hauek gora egitea nahiko



nuke, nire ustez, irakasle batek irakurketaren eta irakurzaletasunaren inguruko hitzaldi bat izan beharko lukeelako guraso guztiekin.

Aurreko paragrafoetan ikusi bezala, inkesta erantzun duten guraso gehienek konpromisoa dute irakurketaren sustapenarekiko. Hala ere, inkestetan ateratako datu batek kezkatzen nau. Izan ere, eskola publikoetako familien % 34,8k bere seme-alabari irakurtzea positiboa dela soilik esaten dio irakurketa sustatzerako orduan. Itunpeko ikastetxeetatik lortutako emaitzak antzekoak dira, % 36,65k metodo horretaz baliatzen delako. Nik uste dut horrelako mezu bat transmititzea oso garrantzitsua dela, baina gehienetan ez du eraginkortasunik. Nire aburuz, mota horretako mezu bat ekintza batekin eskutik lotuta joan behar da, haurrarekin batera irakurtzea edo umearen aurrean irakurtzea adibidez. Udal liburutegia erabiltzea ere oso bide aproposa izan daiteke, baina arestian ikusi bezala, metodo hau gutxi erabiltzen dute.

Aztertutako datuek esaten dute guraso askok erabiltzen dituzten metodoak ez direla eraginkorretan irakurketa sustatzeko orduan. Beraz, hurrengo datuak normalizatzen har daitezke; izan ere, inkestatutako % 46,7k dio haien seme-alabek ez dietela libururik eskatzen. Alderdi honetan desberdintasunak ematen dira publikoko eta itunpeko neska-mutilen eskakizun-mailaren artean. Egia esan, honek ez nau harritzen, bi eskola publikoetan liburuak irakurtzeko agintzen dietelako ikasleei. Beraz, normalena izango litzateke eskola publikoetako ikasleak gurasoei liburuak eskatzeko behar hori ez izatea.




3. Grafikoa: Libururik eskatzen ez dituzten umeak (portzentajetan); alderaketa eskola publikoen eta itunpekoen artean.

Nahiz eta itunpeko eskoletako umeen % 63,35k liburuak eskatzen dituen, esan beharra dago datu hauetan tranpa txiki bat dagoela, Itxaropena Ikastolatik eta Franciscanas de Montpellier ikastetxetik ateratako datuak haien artean oso desberdinak direlako, eztabaidaren hurrengo atalean ondo ikusiko den moduan.

Nahiko desberdinak diren datuak alde batera utziz, parean dauden bi datuei erreferentzia egingo diet. Hasteko, esan beharra dago publikoetako eta itunpekoetako neska-mutilek irakurtzen dituzten liburuen generoak antzekoak direla. Batez ere, abenturazko eta fantasiako obrak irakurtzen dituzte bi ikastetxe mota desberdinetan. Kontuan hartu behar da hirugarren mailako neska-mutilak direla, eta adin horretan abenturazko eta fantasiako liburuen eskaintza oso aberatsa dela. Nire kasuan, adin horrekin ere genero horietako liburuetara jotzen nuen, beraz, datu horiek normalizat hartzen dut.

Nahiz eta bi genero hauek kontsumituenak izan, aipatu beharra dago batez ere itunpeko familiek komentatu dutela kirolezko, zientzia fikziozko eta youtuberren inguruko liburuak ere irakurtzen dituztela. Kasu honetan, herriko liburutegiko harreragileak aipatzen duena baieztatzen da, beraren esanetan, youtuberren liburuak ere eskatzen dituztelako bertara joaten diren haurrek.

Parekotasunean dagoen beste datu bat erositako liburu kopuruaren batez bestekoa da. Eskola publikoetako familiek, batez beste 5,3 liburu erosten dizkiete haien seme-alabei, eta itunpeko familiek, aldiz, 5,1.



4. Grafikoa: Eskola bakoitzeko gurasoek haien seme-alabei erosten dizkieten liburuen batez besteko kopurua.



Azpi atal honi bukaera emateko, aztergai garrantzitsu baten datuak komentatuko ditut. Ikus daiteke familien partetik ahaleginak egiten direla, baina hurrengo datuek esaten digute ahalegin horiek ez direla orain arte guztiz eraginkorrak izan. Izan ere, eskola publikoetako haurren % 21,6k eta itunpekoen % 35k soilik irakurtzen du modu ludiko batean.

### ***Ikastolaren eta kristau eskolaren arteko desberdintasunak***

Oraingoan, Itxaropena Ikastolaren eta Franciscanas de Montpellier eskolaren artean eman diren desberdintasun adierazgarrienak komentatuko ditut. Aurreko azpiatalean itunpeko bi eskolak batera kontuan izan ditut datuak interpretatzerako unean, baina suposatuta daitekeenez, nortasun hain desberdineko bi zentro hauen artean alderaketa anitzak egon daitezke. Hori dela eta, azpiatal hau egitea ezinbestekoa dela uste dut.


Desberdintasunik nabarmenenak irakurketaren sustapenean bereiz daitezke. Udal liburutegiaren erabilpenaren kasua adibiderik onena da; izan ere, ikastolan inkestatuak izan diren % 33k adierazi du herriko liburutegia erabiltzen duela. Kristau eskolako familien % 20 bakarrik bibliotekara joaten da, nahiz eta eskolatik gertu dagoen. Datu hauek ez dira harritzekoak, aurreko puntuan ikusi bezala, bi eskola hauetan ez dutelako hainbeste libururik irakurtzeko agintzen. Hala ere, ikastola eta udal liburutegia elkarren ondoan daude, beraz, Itxaropena Ikastolako familientzako bertara joateak ez du suposatzen esfortzu handirik.

Behin datu honen interpretazioa eginda dagoen, bi eskoletan irakurketa nola sustatzen den komentatuko dut. Arestian esan dudana moduan, ume bati irakurri behar duela esatea ez da nahikoa haur bat irakurzaletasunarekin harremanetan jartzeko. Kasu honetan, bi eskola hauen arteko desberdintasuna nabaria da; ikastolako familien % 20k soilik metodo horretaz baliatzen da, eta kristau eskolaren kasuan, zifra erabat handiagoa da, % 53,3k mezu hori transmititzen diolako bere seme-alabari. Honek emango dudana hurrengo datuaren arrazoiak ulertzera eramaten du. Grafikoan ikusiko den moduan, irakurketa bultzatzen den familietan haur irakurzaleak daude, haien guraso edo senideei liburuak eskatzen dietenak.

Hurrengo grafikoan adierazten diren datuei erreparatuz, ikastolako familiek irakurzaletasunarekiko duten konpromisoak bere saria izan duela, haien seme-alabek liburuak eskatzen dituztelako. Kasu honetan familiak aipatzen ditut, eskolatik ez dudalako hainbeste konpromisorik ikusi.



## 5. grafikoa: liburuak eskatzen dituzten umeak (portzentajeen adierazita)




5. Grafikoa: Liburuak eskatzen dituzten umeak, portzentajeen adierazita.

Azkenik, irakurtzen diren liburuen hizkuntzari buruz arituko naiz. Zorionez, bi zentroetako neska-mutilek euskarazko zein gaztelaniazko liburuak irakurtzen dituzte. Hala ere, Itxaropena Ikastolako emaitzek euskarazko irakurketara hurbiltzeko joera hartzen dute, eta Franciscanas de Montpellier ikastetxeko emaitzek, aldiz, gaztelaniazko irakurketara.

## 6. grafikoa: Itxaropena Ikastolako haurrek irakurtzen dituzten liburuen hizkuntza

■ Euskara eta gaztelania ■ Soilik euskara




6. Grafikoa: Itxaropena Ikastolako haurrek irakurtzen dituzten liburuen hizkuntza

## 7. grafikoa: Franciscanas de Montpellierreko haurrek irakurtzen dituzten liburuen hizkuntza

■ Euskara eta gaztelania ■ Soilik euskara

■ Soilik gaztelania



7. Grafikoa: Franciscanas de Montpellierreko haurrek irakurtzen dituzten liburuen hizkuntza



## 7.2. Ondorioak

Zazpigarren atalaren hasieran aipatu dudan moduan, ondorioen atal honek bi zati izango ditu, eta lehenengo honetan, laugarren puntuko hipotesiak baieztatu edo ezeztatuko ditut, inkestetan lortutako emaitzei erreparatu eta datu horiek interpretatu eta gero. Behin hipotesiekin bukatuta, ondorio zehatzagoetan murgilduko naiz, eta horien azalpena emango dut.

Lehenengo hipotesiak zihoen La Escontrilla eskola publikoko umeek eskolako liburuak ikasturtean zehar irakurtzen dituztela. Argi dago hipotesi hau baieztatzen dela, inkesta erantzun duten familia guztiek baieztapen hori egiten dutelako. Esan beharra daukat banekiela zein izango zen hipotesi honi emango nion erantzuna. Izan ere, aurreko ataletan esan dudan moduan, eskola honetako ikasle ohia naiz, eta nire ikasle garaian jada irakurketaren sustapenak garrantzia handia zuen. Gainera, praktikaldian egungo egoera aztertzeke aukera ere izan dut, eta ikusi dut ikastetxea antzeko egoera batean zegoela.

Bigarren hipotesiaren arabera, San Gabriel Ikastetxeko haurrak dira herritik udal liburutegira gutxien joaten direnak, herriko auzoetan bizi direlako gehienak. Emaitzek arrazoia ematen diote baieztapen honi, soilik % 16,6 udal bibliotekara joaten delako. Nik uste dut kasu honetan gurasoen partetik ahalegin gehiago egiteko aukera dagoela, baina guztiz ulergarria da herriko erdigunetik urrun bizi den jendeak irakurketa sustatzeko beste bide batzuk bilatzea.

Itxaropena Ikastolari erreferentzia egiten dion hipotesiak zion moduan, herriko ikastola bakarreko ikasleak dira euskaraz gehien irakurtzen dutenak. Familia guztien jatorria euskalduna da, nahiz eta inkesta erantzun duten gurasoek haien seme-alabei gaztelaniaz egiten dieten. Kasu askotan, euskaldun izatea euskararen bultzatzaile izatearekin eskutik lotuta doa, eta horren eraginez, ikastolako familiek euskarazko haur-obrak irakurtzeko proposamena egiten diete haien seme-alabei. Hala ere, gaztelaniazko obra asko ere irakurtzen dituztela diote, nik espero nituenak baino gehiago. Beraz, paragrafo honetan esan dudan guztia kontuan hartuz, hirugarren hipotesia ere zuzena da.

Trapagarango eskoletako ondorioekin bukatzeko, Franciscanas de Montpellerreko hipotesia komentatuko dut. Hipotesi honen arabera, kristau eskola honetako hurrek batez ere gaztelaniazko obrak eskatzen dizkiete haien gurasoei. Kasu honetan, baieztapen hori ez da betetzen da, gaztelaniazko obrak eskatzen dizkieten moduan, euskarazko liburuak ere eskatzen dizkietelako liburuak eskatzen



dituzten ume gutxi horiek. Euskara maite duen pertsona gisa, oraingoan okerturik egoteak pozten nau, bere sorreratik orain dela gutxi arte B eredukoa izan den eskola horretan euskararen sustapenak indarra hartu duelako denbora pasa ahala.

Hipotesiekin bukatzeko, udal liburutegiaren inguruko hipotesia baieztatzen dela esan beharra dago. Hipotesi horretan esaten nuen herriko haurren laurdenak baino gutxiago herriko biblioteca erabiltzen duela. Argi dago zehaztasunez ezin daitekeela datu hori baieztatu; baina harreragileak inkestan aipatu bezala, zalantzarik gabe ondorioztatu daiteke zifra gutxi gorabehera hori izango dela.

Behin hipotesi gehienak baieztatu ditudala, emaitzetatik ateratako ondorioak komentatuko ditut, lan honek dituen aztergai desberdinei erantzuna emango diena. Hasteko, eskolek irakurketarekin duten konpromisoari buruz arituko naiz. Etorkizun gertuko irakasle moduan, ikastetxeek irakurketarekin harremanetan uneoro egotea gustatuko litzaidake. Aurreko bi praktikaldietan irakurketaren alde modu nabari batean egiten zuten eskoletan egon nintzen, eta zorionez, etorkizun batean klasean erabiltzeko metodo desberdinak ikusi nituen. Zintzotasun osoz, Trapagarango itunpeko bi eskoletan lortutako emaitzek tristura sortarazten didate, eskoletatik oso liburu gutxi irakurtzen dituztela aipatzen dituztelako. Beraz, ondorio bezala esan daiteke oraindik eskola askotan irakurketaren alde jotzeko aurrerapausoak eman behar direla.

Ikastolako errealitate hori ez dator bat bertatik eskuratutako emaitzekin, bertan ikasten duten umeek liburuak eskatzen dizkietelako haien gurasoei. Honekin esan nahi dut familiak irakurketa sustatzeko ahalegina egiten badu, eskolaren egoera bigarren plano batean geratu daitekeela. Hori dela eta, nahiz eta eskolak garrantzia handia duen, familiak pisu handia duela ondorioztatzen dut. Honek ez du esan nahi irakasle bezala egiten ditugun ahaleginak askotan ez dutenik ezertarako balio, baizik eta irakurketaren sustatzaile gisa, askotan gurasoak kontzientziatu behar ditugula, umeak haur-literaturarekin harremanetan egoteko.

Familien ildotik jarraituta, nire ustez positiboa den ondorio bat aipatuko dut. Marko teorikoan aipatu bezala, bederatzi eta hamalau urteko bitarteko haur eta gazte gehienek (% 80 baino gehiago) aisialdian irakurtzen dute, eta hori oso positiboa da. Hala ere, inkestetan eskuratutako emaitzek zifra hauek murrizten dituzte, aisialdian hainbeste ume ez dutela irakurtzen ikusten delako. Inkesten arabera, haien kabuz irakurtzea familiarekin irakurtzearen orde aldatzen dute, haien gurasoekin edota anai-arrebekin esaterako. Nire iritziz, datu hauek ez dira hain negatiboak; familiarekin egiten



diren jarduerak umeez maite dituztelako. Beraz, horrela jarraituz gero, uste dut haien kabuz denbora librean irakurtzeko aukera gehiago izango dutela.

Irakurritako liburuen artean, ia gehienek baieztatu dute haien seme-alabek abenturazko eta fantasiako liburuak irakurtzen dituztela. Baieztapen hau normalizat hartzen dut, bederatzi urteko ume batentzat generorik aproposenak direlako, edo behintzat, hori pentsatzen dut. Honek ez du esan nahi bakarrik genero horretako liburuak irakurtzen dituztela, udal liburutegiko harreragileak ondo aipatu bezala, gaur egunean pil-pilean dauden gaietako obrak era irakurtzen dituztelako. Youtuber desberdinek publikatu dituzten obrak adibide onak dira ondorio honekin jarraitzeko. Izan ere, nahiz eta betiko generoak mantendu egingo diren (abentura, fantasia, zientzia fikzioa, ...), uste dut belaunaldi berrietako haurrek harreman handia izango dutela teknologia berriekin lotura duten gai batzuekin, eta kasu honetan ondo ikusten da hori.

Hori dela eta, ondorioen atal honi bukaera emateko, teknologia berrien inguruan arituko naiz. Lanaren atal batzuetan aipatu dut teknologiaren aurrerapenaren ondorioz haur-literaturazko obrak bigarren plano batean geratzeak kezkatzen ninduela, baina lanean zehar konturatu naiz ez garela hainbeste kezkatu beharrik. Teknologiak etorkizuneko irakasleoi lagun gaitzake irakurketaren sustapenean, modu desberdinen bidez. Esate baterako, haurrei pantaila baten aurrean irakurtzea proposatu diezaiekegu, haientzat deigarriagoa izan daitekeelako. Hala ere, betiko liburuak mantentzeko ahalegina egin behar dugu, euskal haur-literaturaren bilakaeran pisu handiko obrak direlako. Kasu horretan, aurreko paragrafoan aipatutakoa egin dezakegu, hau da, haien interesa pizten duten gaien inguruko obrak gelara ekartzea, nahiz eta Youtuber baten liburu bat izan.



## 8. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Atal hau bi zatitan banatu dut: alde batetik, ikerketa hau hobetzeko proposamenak aipatuko ditut, eta bestetik, ikerketan lortutako emaitzak hobetu ahal izateko, hau da, irakurketaren gaur egungo egoera hobetzeko, zenbait proposamen ere botako ditut.

### 8.1. Lana hobetzeko proposamenak

Arestian aipatu bezala, lan honek hurrek euskal haur-literaturarekin duten harremana aztertzea izan du helburu. Horretarako, Trapagarango herri bizkaitarretik inkestak banatu ditut, bertako lau zentroetatik eta udal bibliotekatik, alegia. Esan beharra dago herria nahiko anitza dela, eta lau eskolak haien artean nahiko desberdinak direla, nahiz eta bi publikoen artean desberdintasun gutxiago egon daitekeen.

Nahiz eta herrian aniztasuna egon, emaitzak ez dira guztiz errealak, familien %54,6k inkestak erantzun dituelako. Beste % 45,4ren kasuan, suposatu dezaket haien harremana irakurketarekin oraindik negatiboagoa izan daitekeela. Beraz, erantzun guztiak jasotzekotan, uste dut emaitzek txarrera joateko aukera izango luketela.

Hala ere, argi daukat lan honetan lortutako emaitzak ez direla guztiz aplikagarriak Euskal Herriko egungo egoerari, beraz, badakit akats-tartea nabaria dela. Emaitzak zehaztasunera hurbiltzeko, interesgarria izango litzateke Bizkaiko ezkeralde osotik mugitzea, inkestak herri desberdinetatik banatuz. Modu honetan, lagina handituko nuke, eta jende gehiagoren iritsia kontuan hartuko nuke.

Baina zoritxarrez, mota honetako lan batean pertsona bakar batek hainbeste pertsonen iritsia kontuan hartzea oso zaila da, denbora eta baliabide faltagatik batez ere. Beraz, argi dago lan honen bidez nire helburura hurbildu naizen arren, lortutako datuek ez nautela eramaten egungo errealitatera.

### 8.2. Irakurketaren egoera hobetzeko proposamenak

Azpiatal honi dagokionez, esan beharra dago emango ditudan proposamenak irakasle baten ikuspegitik batez ere emango ditudala. Hau da, nik neuk irakasle gisa zer egin dezakedan ikasleen artean irakurketa sustatzeko eta umeez euskal haur-literaturako obrak irakurtzeko. Hala ere, gurasoentzako gomendio batzuk ere aipatuko ditut, irakurketa sustatzeko interesgarriak izan daitezkeenak.



Hobekuntza proposamenekin hasi baino lehen, komentatu behar dut bigarren bi praktikaldietatik ateratako proposamenak aipatuko ditudala, hau da, Lakuabizkarra eskola eta Toki Eder Ikastola gasteiztarretan erabiltzen diren metodo desberdinak. Eskola publiko hauetan irakurketaren alde egiten da modu nabari batean, eta orokorrean, nik ikusi izan nuenaren arabera, ikasleek harreman handia dute haur obrekin.

Lakuabizkarran, ikasturte hasieran gelako liburutegi bat sortzen dute irakasle eta ikasle ororen artean. Ikasle bakoitzak bi liburu eramaten ditu, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz, eta ikasturteak aurrera egin ahala, haurrek aukeratzeko dituzten liburuak irakurtzen dituzte. Beraz, ikasleak ez daude behartuta nahi ez dituzten liburuak irakurtzera. Modu honetan, irakurketa zaletasun moduan hartuko dute, haien gustukoak diren liburuak irakurriko dituztelako.

Argi dago gerta daitekeela ikasle batek ez jakitea hartu duen liburua bere gustukoa izango den ala ez. Kasu horietan, ikasle horrek liburuaren kontra-portadan itsatsita dagoen orri txiki bat ikusteko aukera izango du, non bere ikaskideek liburu horren inguruko iritsia eman duten, gomets desberdinen bitartez. Gometsa berdea izanez gero, liburua haien gustukoa dela adieraziko du; horia izanez gero, liburuaren inguruko iritsia ez dela ona ezta txarra ere izan; eta gorria izanez gero, liburua ez dela ikasle horren gustukoa izan.

Irakasleak liburuen inguruko kontrol bat izateko, ikasle bakoitzari fitxa pertsonal bat banatzen dio ikasturte hasieran, eta bertan, liburuaren izenburua eta iritsi labur bat idazteko eskatzen dio. Hilabete bat pasa eta gero, tutoretza ordu batean normalean, ikasleei kontrol fitxa eskatzen die, eta irakurri dituzten liburuak apuntatzen ditu.

Nire iritziz, oso metodo eraginkorra da irakurketa sustatzeko, eta seguru etorkizun gertu batean irakasle moduan lan egingo dudanean horrelako zerbait gelan sortuko dudala. Iritsi positiboa daukat honen inguruan batez ere irakurketa eta zaletasuna bateratzen duelako. Ez dut uste ume bati gustuko ez duen liburu bat irakurtzera behartzea ondo dagoenik, modu horretan haur hori irakurzaletasunetik aldentuko dugulako. Baina modu honetan, haien gustuko liburuak irakurriko dituzte, eta horrek, irakurzaletasuna piztu dezake belaunaldi berrietan.

Bestalde, Toki Eder Ikastolan erabiltzen duten metodoa aipatuko dut. Metodo hau ez dago eskola guztien esku, eskola guztiek ez dutelako liburutegirik. Hala ere, modu interesgarri bat iruditzen zaidanez irakurketa sustatzeko, aipatu egingo dut. Bertako biblioteca oso handia da, eta liburu guztiak zikloka banatzen dituzte. Gela



bakoitza astero ordubete joaten da liburutegira irakurtzera, eta ordu horretan bi modutan sustatzen dute irakurzaletasuna.

Lehenengo berrogei minutuetan gutxi gorabehera haur bakoitzak liburu bat irakurtzen du, bere zikloko apalategitik hartua. Liburu horiek umeei etxera eramateko aukera dute, eskolatik kanpo ere irakurtzea posiblea dela ikus ditzaten. Hala ere, astero, liburuzainak umeei liburuak etxetik ekarri dituzten ala ez kontrolatzen du, ordenagailuan duen datu-base baten bidez eta umeei ikasturte hasieran banatzen zaien kontrol-fitxa baten bidez.

Beste hogeit hamar minutuetan, bibliotekariak umeei liburu bat ozen irakurtzen die, eta umeei arretaz entzuten dute. Zintzotasun osoz, ni praktiketan egon nintzenean zegoen pertsonak izugarri ondo irakurtzen zizkien liburuak umeei: intonazio egokia erabiltzen zuten; beharrezkoak ziren isiluneak egiten zituzten; etab. Modu horretan oso erreza zen istorioan sartzea, eta umeei asko gozatzen zuten hogeit hamar minutu horiek.

Aipatu ditudan bi proposamen horiek ikastetxe batean aurrera eramateko proposak dira. Baina, lehen esan bezala, gurasoentzako gomendagarria izan daitezkeen proposamenak ere komentatuko ditut.

Nik uste dut gurasoek irakurzaletasuna haien seme-alabarengan pizteko esfortzua egin behar dutela. Hori lortzeko, zenbait gauza desberdinak egin ditzakete, nire gurasoek haurra nintzenean egin zituztenak esaterako. Adibide bat jartzearren, nire amak nirekin irakurtzen zuen, irakurtzea pilo bat gustuko zuelako eta niregan irakurzaletasuna piztu nahi zuelako. Hori eginez, bere xedea lortu zuen, liburuak irakurtzen hasi nintzelako.

Nire aitaren kasua desberdina izan zen. Pertsona askori gertatzen zaien moduan, nire aitak ez zuen gustuko irakurtzea. Hala ere, bazekien oso aberasgarria dela pertsona batentzat, beraz, irakurketa sustatzeko esfortzua egin zuen. Berak erabilitako metodoa oso eraginkorra izan zen. Izan ere, nire zaletasunak kontuan hartzen zituzten liburu bat erosteko edo udal bibliotekan alokatzerako unean. Hori dela eta, nik txikitzen irakurtzen nituzten liburu asko futbolaren inguruan ziren.

Honek adierazten du ez zarela irakurzaletasunaren grina pizten saiatzeko. Metodo anitzak daude, baina guztiek zerbait izan behar dute komunean: irakurketa eta zaletasuna bateratu behar dutela. Beraz, irakasle zein guraso bezala, ez ditzagun umeei behartu liburu bat irakurtzera, modu horretan irakurketa behar gisa ikusiko dutelako.



## 9. BIBLIOGRAFIA

236/2015 Dekretu, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria.

Colomer, T. (2010). *Introducción a la literatura infantil y juvenil actual*. Madril, Espainia: Síntesis.

Etxaniz, X., López, J.M. (2012). *Literatura infantil y juvenil vasca contemporánea*. Vitoria-Gasteiz, Espainia: Arabako Foru Aldundia.

Fons, M. (2004). *Leer y escribir para vivir: Alfabetización inicial y uso real de la lengua escrita en la escuela*. Bartzelona, Espainia: Graó.

Jiménez, L. (2012). La animación a la lectura en las bibliotecas... La construcción de un camino hacia la lectura. *Boletín de la asociación andaluza de bibliotecarios*, 27 (103), 59-78.

Plaza, J.M. (2018ko urtarrila). Barómetro de la lectura 2017: se lee más pero peor. Hemendik berreskuratua: <https://www.elmundo.es/cultura/literatura/2018/01/18/5a607873468aeb34758b4600.html>

Serna, M. (2015). *Bizkaiko Lehen Hezkuntzako ikasleen irakurtzeko ohiturak eta irakurtzearen balioa*. (doktore tesia). Euskal Herriko Unibertsitatea, Espainia.

Urretabizkaia, A. (2017ko martxoa). Zertarako irakurri. Hemendik berreskuratua: <https://www.elcorreo.com/bizkaia/culturas/libros/201703/08/zertarako-irakurri-20170306221608.html>





## 10. ERANSKINAK

Eranskinen atal honetan lana aurrera eramateko prestatu eta erabili izan ditudan inkestak agertuko dira. Inkestak bi hizkuntza desberdinetan idatzita daude, Trapagarango pertsona askok ez dutelako euskara ulertzen. Honetaz aparte, eskola bakoitzaren argazki bat ere ikusgai egongo da

### **1) Gurasoek erantzun duten inkesta**

Kaixo guztioi, Lehen Hezkuntzako gradua bukatzeko beharrezkoa den Gradu Amaierako Lanean, euskal Haur Literaturaren gaia lantzea erabaki dut. Hori aurrera eramateko, Trapagarango neska-mutilek zer nolako harremana duten euskal literaturarekin aztertu behar dut, eta azterketa hori egiteko galdetegi bat sortu dut. Zuen laguntza eskertuko nizueke. Eskerrik asko.

Hola a todos y todas, el tema que he decidido tratar en el Trabajo de Fin de Grado que tengo que presentar para terminar el grado de Educación Primaria es el siguiente: Literatura Infantil Vasca. Para ello, voy a analizar la relación que tienen los niños y niñas de Trapagarán con la literatura infantil, y para llevar eso a cabo he creado esta encuesta. Os agradecería vuestra ayuda. Muchas gracias.

## **INKESTA / ENCUESTA**

-Aztergaiari buruzko galderak erantzun baino lehen, umearen eta bere familiaren inguruko lau galdera proposatzen dizkizuet.

-Antes de responder las preguntas sobre el tema que voy a tratar, os propongo responder unas preguntas sobre la familia del niño y/o la niña.

### **1. Ikastetxea / Centro escolar**

- ❖ La Escontrilla Eskola
- ❖ San Gabriel Ikastetxea
- ❖ Itxaropena Ikastola
- ❖ Franciscanas de Montpellier Ikastetxea



## 2. Familia eredu. Norekin bizi da umea? / Tipo de familia. ¿Con quién vive el niño o la niña?

- ❖ Familia tradizionala: amarekin eta aitarekin / Familia tradicional: Con el padre y la madre
- ❖ Bikote homosexuala: amarekin eta amarekin / Pareja homosexual: Con las madres
- ❖ Bikote homosexuala: aitarekin eta aitarekin / Pareja homosexual: Con sus padres
- ❖ Guraso bakarra: amarekin / Con su madre
- ❖ Guraso bakarra: aitarekin / Con su padre
- ❖ Gurasoak bananduak: amarekin / Padres separados: Con su madre
- ❖ Gurasoak bananduak: aitarekin / Padres separados: Con su padre
- ❖ Aitona-amonekin / Con los abuelos

## 3. Familiaren jatorria / Procedencia familiar

- ❖ Jatorri euskalduna: Bi gurasoak euskaldunak / Procedencia vasca: El padre y la madre son vascos
- ❖ Jatorri espainiarra: Bi gurasoak espainiarrak / Procedencia española: El padre y la madre son nacidos en otro lugar de España
- ❖ Jatorri euskalduna/espainiarra: Guraso bat euskalduna / Procedencia vasca/española: Uno de los padres es vasco
- ❖ Jatorri ez euskalduna/ez espainiarra: Espainiatik at etorria / Procedencia no vasca/no española: Llegados de fuera de España

## 4. Umearen ama-hizkuntza / Lengua materna

- ❖ Euskara / Euskera
- ❖ Gaztelania / Castellano
- ❖ Beste bat / Otro idioma



-Behin haurraren jatorriari eta ingurugiroari buruzko galderak erantzunda, aztergaiari buruzko galderak erantzutea proposatzen dizuet, familia bakoitzaren eta Haur Literaturaren arteko harremana ezagutzeko.

-Una vez hayáis respondido las preguntas sobre el entorno familiar del niño o la niña, os presento las preguntas sobre el tema a tratar. Así, conoceré cual es la relación del niño o de la niña con la Literatura Infantil.

**5. Familiak etxean irakurketa bultzatzen du? / ¿La familia impulsa la lectura?**

- ❖ Bai / Si
- ❖ Ez / No

**6. Aurreko erantzuna baiezkoa bada, nola bultzatzen duzue irakurketa? / En caso de que la respuesta anterior sea positiva ¿Cómo impulsáis la lectura?**

- ❖ Umeei irakurri behar dutela esanez / Haciéndole saber al niño o la niña que tiene que leer
- ❖ Haurrarekin batera irakurtzen / Leyendo junto él o ella
- ❖ Umeari eredua emanez: Beraren aurrean irakurri, esaterako / Siendo ejemplares: Leyendo delante del niño o la niña, por ejemplo
- ❖ Udal liburutegira joanez / Yendo a la biblioteca municipal

**7. Bosgarren galderaren erantzuna ezezkoa izanez gero, zergatik ez duzue irakurketa bultzatzen? / Si la respuesta de la quinta pregunta es negativa, ¿Por qué ni impulsáis la lectura en casa?**

- ❖ Ez dugu uste irakurketa garrantzitsua denik / No pensamos que la lectura sea importante
- ❖ Etxean ez dugu irakurtzen, eta umeak gure jokaera kopiatzen du / En casa no leemos, y el niño sigue nuestros pasos
- ❖ Beste arrazoi batengatik. Zehaztu / Por otra razón. Especificar



## 8. Umeak nola irakurtzen du etxean? / ¿Cómo lee el niño o la niña en casa?

- ❖ Bakarrik irakurtzen du, modu ludiko batean hartzen duelako irakurketa / Lee solo, de una manera lúdica
- ❖ Gurasoarekin batera irakurtzen du / Lee junto a su padre y/o su madre
- ❖ Anai-arrebekin batera irakurtzen du / Lee junto a su hermano/a

## 9. Umeak zer irakurtzen du? / ¿Qué lee el niño?

- ❖ Etxetik hartutako liburuak / Los libros que coge de casa
- ❖ Udal liburutegitik hartutako liburuak / Libros cogidos en la biblioteca municipal
- ❖ Eskolan irakurtzeko agintzen dieten liburuak / Libros que le mandan leer en la escuela
- ❖ Aurreko guztiak / Todas las anteriores

## 10. Zein hizkuntzatan irakurtzen ditu liburuak? / ¿En qué idioma lee?

- ❖ Euskaraz / En euskera
- ❖ Gaztelaniaz / En castellano
- ❖ Ingelesez / En inglés
- ❖ Aurreko hizkuntza guztietan / En todos los idiomas mencionados anteriormente
- ❖ Beste hizkuntza batean / En otro idioma

## 11. Euskaraz irakurtzeari garrantzia ematen diezue? / ¿Le dais importancia a leer en euskera?

- ❖ Bai / Si
- ❖ Ez / No



**12. Irakaslearekin irakurketari buruzko garrantziaz aritu zarete? ¿Habéis hablado con el profesor/a sobre la importancia que tiene leer?**

- ❖ Bai / Si
- ❖ Ez / No

**13. Haurrak liburuak eskatzen ditu? / ¿El niño o la niña pide libros?**

- ❖ Bai / Si
- ❖ Ez / No

**14. Eskatzen edo irakurtzen dituen liburu horiek zeri buruzkoak dira (generoa)? / ¿De qué género son los libros que pide o lee?**

- ❖ Abenturazkoak / De aventura
- ❖ Beldurrezkoak / De miedo
- ❖ Zientzia fikziozkoak / De ciencia ficción
- ❖ Fantasiakoak / De fantasía
- ❖ Kirolei buruzkoak / Sobre los deportes
- ❖ Arestian aipatu ez den beste genero batekoak / De otro género no mencionado anteriormente

**15. Eskatutako liburu horiek euskaraz izaten dira? / ¿Los libros que os pide suelen ser en euskera?**

- ❖ Bai, beti / Sí, siempre
- ❖ Askotan bai / Casi siempre si
- ❖ Ez, nire seme-alabak ez du euskarazko libururik eskatzen / No, mi hijo/a ni me pide libros en euskera



**16. Zenbat liburu erosten dizkiozue zuen seme-alabari urtero? / ¿Cuántos libros le compráis al año al niño o a la niña?**

❖ Zehaztu kantitatea / Especifique la cantidad:

Inkesta guztia bete duzue, eskerrik asko zuen laguntzagatik!!

Habéis completado toda la encuesta, muchas gracias por vuestra ayuda!!

**2) Udal liburutegiko harreraqileak erantzun duen inkesta**

Kaixo guztioi, Lehen Hezkuntzako gradua bukatzeko beharrezkoa den Gradu Amaierako Lanean, euskal Haur Literaturaren gaia lantzea erabaki dut. Hori aurrera eramateko, Trapagarango neska-mutilek zer nolako harremana duten euskal literaturarekin aztertu behar dut, eta azterketa hori egiteko galdetegi bat sortu dut. Zuen laguntza eskertuko nizueke. Eskerrik asko.

Hola a todos y todas, el tema que he decidido tratar en el Trabajo de Fin de Grado que tengo que presentar para terminar el grado de Educación Primaria es el siguiente: Literatura Infantil Vasca. Para ello, voy a analizar la relación que tienen los niños y niñas de Trapagaran con la literatura infantil, y para llevar eso a cabo he creado esta encuesta. Os agradecería vuestra ayuda. Muchas gracias.

**INKESTA / ENCUESTA**

**1. Lanean ikusten duzenaren arabera, esan daiteke Trapagarango neska-mutilak udal liburutegira joan ohi direla? / Teniendo en cuenta lo que veis en el trabajo, ¿se puede decir que los niños y niñas de Trapagaran suelen ir a la biblioteca municipal?**

❖ Bai / Si

❖ Ez / No



**2. Joaten diren haurrak zertara joaten dira? / ¿A que van los niños y niñas a la biblioteca?**

- ❖ Irakurtzera / A leer
- ❖ Etxerako lanak egitera / A hacer los deberes
- ❖ Ordenagailuarekin egotera / A utilizar el ordenador
- ❖ Beste gauza batzuetara / A otras cosas

**3. Irakurtzera joaten direnak, bakarrik irakurtzen dute edo nagusi baten laguntza behar dute? / Los que van a leer, ¿leen solos o necesitan la ayuda de alguna persona mayor?**

- ❖ Bakarrik irakurtzen dute / Leen solos/as
- ❖ Nagusi baten laguntza behar dute / Necesitan ayuda de una persona mayor

**4. Umeak norekin joaten dira liburutegira? / ¿Con quién van los niños y niñas a la biblioteca?**

- ❖ Beren gurasoekin / Con su padre y/o su madre
- ❖ Haiak bakarrik / Ellos solos
- ❖ Lagunekin / Con los amigos
- ❖ Irakasle partikulararekin / Con el profesor o profesora particular
- ❖ Aitona-amonekin / Con su abuelo y/o abuela
- ❖ Beste aukera bat / Otros

**5. Gurasoak haien seme-alabentzako aproposak diren haur literaturako obrei buruzko galderak egitera gerturatzen dira? / ¿Los padres y/o madres se acercan a preguntar sobre obras de la literatura infantil que son adecuadas para sus hijos/as?**

- ❖ Bai / Si
- ❖ Ez / No



**6. Zer motatako liburuak eskatzen dituzte umeez (edo haien gurasoek)? / ¿Qué tipo de libros piden los niños (o sus padres o madres)?**

- ❖ Abenturazkoak / De aventura
- ❖ Beldurrezkoak / De miedo
- ❖ Zientzia fikziozkoak / De ciencia ficción
- ❖ Fantasiakoak / De fantasía
- ❖ Kirolei buruzkoak / Sobre los deportes
- ❖ Arestian aipatu ez den beste genero batekoak / De otro género no mencionado anteriormente

**7. Liburu horiek normalean zein hizkuntzatan daude idatzita? / ¿Esos libros que piden normalmente en qué idioma están escritos?**

- ❖ Euskaraz / En euskera
- ❖ Gaztelaniaz / En castellano
- ❖ Ingelesez / En inglés
- ❖ Beste hizkuntza batean / En otro idioma

**8. Haur Literaturari dagokionez, eskaintza euskaraz handiagoa da? / ¿La oferta en euskera es mayor respecto a la literatura infantil?**

- ❖ Bai, umeei zuzendutako euskarazko liburu gehiago ditugu / Si, tenemos más libros infantiles en euskera
- ❖ Ez, egiten dugun eskaintza batez ere gaztelaniaz da / No, la oferta de libros infantiles que hacemos es mayor en castellano

**9. Liburutegiak irakurzaletasuna bultzatzeko programaren bat dauka? / ¿La biblioteca tiene algún programa para impulsar la lectura?**

- ❖ Bai / Si
- ❖ Ez / No



**10. Erantzuna baiezkoa bada, uste duzue programa hori arrakastatsua dela? / En caso de que la respuesta anterior sea positiva, creéis que ese programa es exitoso?**

- ❖ Bai, programa martxan dagoenetik ume gehiago gerturatzen dira irakurtzera / Si, desde que esta el programa en marcha se acercan más niños y niñas a leer
- ❖ Ez, nahiz eta programa martxan egon, ume gutxi gerturatzen dira irakurtzera / No, aunque el programa este en marcha, pocos se acercan a leer

**11. Zuen lanean ikusten duzuenaren arabera, uste duzue orokorrean Trapagarango neska-mutilek irakurtzeko ohitura dutela? / Teniendo en cuenta lo que veis en vuestro trabajo, ¿creéis que los niños y niñas de Trapagaran tienen la costumbre de leer?**

- ❖ Bai / Si
- ❖ Ez / No

**3) Eskola parte-hartzaileak**

*La Escontrilla Eskola*



*San Gabriel Ikastetxea*



*Itxaropena Ikastola*



*Franciscanas de Montpellier Ikastetxea*

